

Tiburcio ARRAZTOA
→ 18'Doneztebe pelotari'
liburua kaleratu du**Gehigarria** → 23-28
Udazken-neguko moda**ETXALAR** → 13
Usategietako igandea
urriaren 8an**MALERREKA** → 19
Ekitaldiz betetako hilabetea
Kultur Birarekin**GARTZAIN** → 33
Herriko bestak
urriaren 11tik 14ra**SENPERE** → 39
Larraldea bertsopaper
lehiaketa antolatu dute

NAFARROA OINEZ 2017



ERREPORTAJEA → 3-5

Nafarroa Oinez urriaren 15ean Lesakan

29 urteren buruan, Lesakara itzuliko da Nafarroako Ikastolen besta haundia. *Bikin batin* lelopean eta hiru kilometro eta erdiko ibilbidea lau gunetan banatuta, Lesakako Tantirumairu Ikastolak haur, gazte nahiz helduendako aisialdi eskaintza zabala pres-tatu du egun osorako. Guraso etorkinak omenduko dituzte aurtan, bi gurasoak erdaldunak izan eta seme-alabak ikastolan sartu dituztenak, hain zuzen. Antolatzailleek Lesakara hurbildu eta ikastolari laguntzeko gonbidapena luzatu dute. Azken urte eta erdiko lana borobiltzeko eguna izanen da.



Lurraren Egunaren 31. edizioa urriaren 22an Beran

Eskulangileen eta elikadura azoka, barazki erakusketa, Olakoren erakusketa, argazki erakusketa, gasna eta sagardo lehiaketak, musikariak, herri-kirolak, dantzaldia... Bertze urte batez, egun osoko besta antolatu dute Lurraren Egunerako Beran. Bezperan ere izanen dira ekitaldiak: Jakoba Errekondoren hitzaldia, Lizuniagako Igoera eta ttikien lasterketa, argazki erakusketa, txotxongilo tailerra, barazki-opil lehiaketa...

→ 11

ZOKKETAK

→ 51



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo
idatzi **info@ttipi.eus**
helbidera.



EZKONTZEKOTAN?

ZURE EZKONTZARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA
HEMEN AURKI
DEZAKEZU.

II. EZKONTZA AZOKA

URRIAK 14 ETA 15

FICOBAN



IRUN

www.losmunecosdelatarta.com
losmunecosdelatartairun@gmail.com



1. GUNEA ARRATZUBI	2. GUNEA BERTIZENEA	3. GUNEA BIURGARAI	4. GUNEA UHARTEA
10:00 ERRONKA* 10:30 Tiriki Trauki 11:30 KIKI: katapuntxispun 12:30 Larraindantza 13:00 HIRU3 kanta dantza! 14:00 Herri kirol parte hartzaileak 15:00 "SUPERLAGUNA" 16:00 Zumba "Bikin batin" 17:00 TTIPIKA > Egunean zehar DIARIO DE NOTICIAS eta EITB-en eskutik haur jarduerak: puzgarriak, ludoteka... i + € T 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100	10:00 KALERA 11:00 ERRONKA 12:00 Oihan Vega 14:00 ISEO&Dodosound 16:00 Bad Sound System 17:30 TRIKIDANTZ > Egunean zehar "GURE BIDEA IRUDIETAN" erakusketa i + € T 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100	10:00 BRUN BURDINOLA 10:45 HERRI KIROLAK 12:00 ERRONKA 13:00 OREKA TX 15:00 PETTI eta etxeko uza 17:00 BORROKAN > Egunean zehar EROSKI FUNDazioa en eskutik haur jarduerak: Zetako (Ondoko), Bicoopuli i + € T 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100	10:00 ERRALDOIAK 10:45 ALIDE SANS 11:45 BERTSO SAIOA 13:00 ERRONKA FINALA 14:00 SARI BANAKETA 14:30 GABENARA 17:00 XUTIK > Egunean zehar LABORAL KUTXA eta KAIKUren eskutik haur jarduerak: puzgarriak, ludoteka... i + € T 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100

TALDE IBILTARIAK
 Txarangak Elutxa, Los Incansables Txistulariak Berako Txistulariak Gaitariak Baztango gaitariak
 Trikitilariak Mendaur Trikipandero eskola, Lesakako Trikitixa Taldea, Xapiru Trikitixa Eskola Fanfarreak
 Kuxkuxtu, Kli-K Erraldoiak Etxalarko Erraldoiak, Berako Erraldoiak Soinalariak Lesakako Soinalariak
 Joaldunak Iturengo Joaldunak Elektrotxarangak Burrumba

*ADII Erronka gunearen kanpoko aldean egiten da

lekukoa Tantirumairuko-
ek, Lodosa eta Vianako
ikastolen eskuetatik. Ge-
roztik, buru-belarri ibili
dira lanean. Baina Nafa-
rroa Oinez urriaren 15eko
besta baino gehiago da;
ekitaldiz betetako urte
mugitua izan da, eta
guztia ongi lotzeko joan
den urteko apiriletik ari-
tu dira lanean. Maria Lui-
sak azaldu digunez, «ur-
te eta erdiz, 150 bat per-
sona aritu gara lanean.
Gaur egun, ikastolan ez
gara 70 familia ere, eta
guretzat kopuru handia
da». Aitortu digunez, «lan
neketsua izan da, baina
giro ederra izan dugu, eta
ongi ateratzeko ilusioa-
rekin aritu gara».

Alde batetik, tobera
tailerra eta bertso trama,
duatloia, Oroitzapenei
aditzen ikasiz ekitaldia,
Trenbide(o)a lehiaketa,
Euskal Herria-Eire Topa-
keta, Dena ez delako lana
betijaialdia eta Haur Kan-
tari Jaialdia bezalako jar-
duerak egin dituzte. Eta
bertzetik, Oinez Basoa,
Oinez Gailurra, Txikiak
Handi, Erronka eta Artea
Oinez bezalako proiektu
iraunkorrak landu dituzte.

GIZARTEA → NAFARROA OINEZ

‘Bikin batin’ egiteko ordua ailegatu da

Urriaren 15ean ospatuko dute Tantirumairu
Ikastolak antolatutako Nafarroa Oinez besta

29 urteren buruan, Lesakara itzuli-
ko da Nafarroako Ikastolen besta
haundia. *Bikin batin* lelopean eta
hiru kilometro eta erdiko ibilbidea
lau gunetan banatuta, egun osoko
besta antolatu du Tantirumairu

Ikastolak. Bi gurasoak erdaldunak
izan eta haurrak ikastolan sartu
dituztenak omenduko dituzte.
Antolatzailerek Lesakara hurbildu
eta ikastolari laguntzeko
gonbidapena luzatu dute.

G. PIKABEA

Urriaren 15ean boro-
bilduko du Lesakako Tan-
tirumairu Ikastolak azken
urte eta erdian landu
duen proiektua. Egun ho-

rretan ospatuko baita Na-
farroako Ikastolen besta
haundia: Nafarroa Oinez.
Milaka euskaltzaleri
ateak irekitzeko prest di-
ra Lesakan, eta aisialdi

eskaintza zabala presta-
tu dute: hiru kilometro eta
erdiko ibilbidean lau gu-
ne izan dira, eta horie-
tan kontzertuak, ikaste-
txeen arteko erronka,

haurrentzako ikuskizu-
nak, herri-kirolak, ber-
tsoak... 10:00etan hasi
eta 18:00 aldera arte haur,
gazte nahiz helduek go-
zatzeko aukera izanen
dute Arratzubi, Bertize-
nea, Biurgarai eta Uhar-
tea guneeetan. Ibilbidean
zehar ere ez da animazio-
rik faltako, hainbat talde
ibiliko baitira: txarangak,
txistulariak, gaiteroak, tri-
kitilariak, fanfarreak, soi-
nulariak, erraldoiak, joal-
dunak, elektrotxaranga...

Bertzetik, guraso etor-
kinak omenduko dituzte:
«Bi gurasoak erdaldunak
izan eta haurrak ikasto-
lan sartu dituzten hamabi
bikoteak». Hala kontatu
digu Maria Luisa Etxebe-
rria Olano Tantirumairuko
zuzendari pedagogikoak.

URTE OSOKO LANA

Joan den urtean hartu
zuten Nafarroa Oinez

DATUA

1.500

LAGUN LANEAN

Nafarroa Oinez egunean
jende aunitz beharko da
lanean aritzeko.

LAGUNTZEKO DEIA

Baina lantalde iraun-
korretan aritu diren doze-
naka lagun horiek ez di-
ra aski izanen egunari be-
gira. «Azpiegitura haun-
dia» beharko baitute:
«1.500 lagun behar dira
lanerako», dio Tantiru-
mairuko irakasleak. Eta
aukera probestuz, es-
kualdeko jendeari lagun-
tzeko deia luzatu nahi izan
die: «lan txandak egun
erdikoak dira, eta lanean

aritzeko zonaldeko jendea behar dugu. Anima-tu daitezela».

GARRAIO PUBLIKOA

Garraio publikoa erabiltzeko aholkatu du Maria Luisak, herri bakoitzetik etorriko diren autobus antolatua hartzeko edo bertzela, harat honatean ibiliko direnak hartzeko. Irundik zerbitzua indartu egingen dute, eta 09:00-etatik aitzinera zerbitzu jarraia eskainiko du Burundesak. Baztanesak ere 09:30ean Elizondotik atera eta Lesakarako autobusa eskainiko du, eta bueltarako bi: 17:20an eta 20:20an. Gainera egun horretan, zubian gelditu beharrean, Lesakara sartuko dira.

Autoan heldu diren entzat, berriz, hainbat aparkaleku egokitu dituzte eta aparkaleku horietatik autobusak izanen dira Lesakara. Iruñea aldetik etorriko direnek Lesakan eta Etxalarren aparkatzeko aukera izanen dute; Irundik eta Baiona-Behobiatik datozenek Beran eta Nabasturenen aparkatu ahal izanen dute; Oiartzundik datozenek Nabazen; Sara aldetik dato-

BIGARREN OINEZA

Euskarari eutsi, euskaraz hezi lelopean, 1988an antolatu zuen Tantirumairu Ikastolak lehenbiziko aldiz Nafarroa Oinez Lesakan. Hari esker, ikastolaren egoitza berri eta legalizatzea lortu zuten.

zenek ere Beran aparkatzeko aukera izanen dute. Mugikortasun urrikoen ibilgailuentzako, autokarabarentzako eta 4x4 ibilgailuentzako ere aparkalekuak prestatu dituzte.

Bertzalde, garraioa dela eta, gonbidapen berezia egin diete Bortzirietako eta Bidasoaldeko herritarrei: «bizikletan etor daitezela, Harriondoan bizikletentzako aparkalekua izanen dute, egun osoan zaindua».

ZUBI LANA

«Herri berean egingen dugun bigarren Oineza, egin nahi dugun bigarren eraikinak ikastola bakarra osatuko du, euskara bi belaunaldien arteko komunikazio tresna bakarra izatea nahi dugu, Nafarroa bitan banatua dago baina Nafarroa Garaia eta Behereak Nafarroa bat osatzen dute...». Bi, bat, bat, bi... Bi zenbakia izan da aurtengo Nafarroa Oinez leloaren hitz giltzarria, baina bi horiek bat egiten dutela adierazi izan dute Tantirumairutik. Hortik sortua da *Bikin batin* leloa. Logoa ere bide beretik doa, «bi belaunaldi horien begirale eta historiaren lekuko izan den intxaurrondoaren bi hosto irudikatzen ditu». Ikastolaren atarian duten intxaurrondoaren bi hosto, hain zuzen.

Bikin batin leloa Lesakako euskalkian idatzia da: «alde batetik, ikastola sortu aitzinetik, euskararen transmisioa alfabetatu gabeko guraso eta



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Aitor Iratzoki ikastolako Nafarroa Oinezeko zuzendaria eta Amaia Lasheras lehendakaria, joan den urtean Nafarroa Oinez lekuak hartu zutenean.

Tantirumairu Ikastola

Narroa Oinez helburuak

Haunditu eta haunditu, azkenean ttiki gelditu da Otsogorrienea. 1974an zazpi ikasleren hasi zen egitasmoa, gaur egun, ehun ikaslelik goiti dituen ikastola izatera pasatu baita. Eta Maria Luisa Etxeberriaren hitzetan, «eraikinak ez ditu ikastolaren premia guztiak asetzen, espazio aldetik arazoak ditugu». Hutsune horiek dira, hain zuzen, Nafarroa Oinezekin estali nahi dituztenak: jangela handiagoa egin nahi dute; laborategi bat (lehenagokoa informatika gela bilakatu behar izan baitute); hezkuntza premiak dituztenekin lan bereziak egiteko gela bat ere egin nahi dute; talde bikoiztuak banatzeko gelak; zuzendaritza bulegoa, tutoretza gela eta Guraso Elkartearentzat bulegoa... Horretaz gain, Otsogorrienea ez duenez zabalkuntzarik onartzen, ondoan eraikin berri bat egin nahi dute eta horrek Haur Hezkuntza osoa hartuko luke, baita jangela eta psikomotrizitate gela ere. Hartara, eraikin zaharra, egokitzapen batzuk eginga, Lehen Hezkuntzakoentzako geldituko litzateke.

aitatxi-amatxien ahotik egiten zenez, beraien-tzako keinu bat izan da. Bertzetik, gaur egun gazteek sare sozialetak horrelako laburdurak erabiltzeko ohitura handia du. Beraz, gure arbasoen eta gure gazteen belaunaldien arteko zubi moduan ere uler daiteke».

Leloan oinarritu da Estitxu Arozena bertsolari lesakarra Nafarroa Oinezeko kantaren hitzak egiteko ere. Lesaka herria bera, bere memoria, ikastola eta haurren bizipoza islatzen ditu kantaren letrak. Eta hitz horiek doinuz jantzi dituen Igor

Telletxea Berako musikaria izan da. Guztia irudietara eraman duena, berriz, Xumar Altzugarai zinegile lesakarra.

Urduritasuna, ilusioa, poza, eguraldiaren kezka... Sentimendu aunitz ari dira pilatzen Lesaka aldean Nafarroa Oinez hurbildu ahala. Dena ongi lotua dute eta jendea Lesakara joatea falta da orain, egindako lanak me-rezitako erantzuna izan dezan. Hortaz, urriaren 15ean Lesakarako hurbiltzeko gonbitea luzatu nahi izan du Etxeberriak: «toki egokian dago Lesaka eta herrialde aunitze-

kin muga dagoen txoko honetatik urriaren 15ean Lesakara etortzeko deia egiten diegu. Euskaltzale guztien topalekua izanen da».

Lesaka bertze modu batera ezagutzeko aukera ere izanen dela azpimarratu nahi izan du irakasleak: «jende aunitzek ezagutzen du Lesaka sanferminengatik. Baina Nafarroa Oinezi esker, gazteek eta orain heldua izanda ere sanferminetan ibil-litakoa den jende horrek ezagutzen ez duten Lesakako bertze bazter bat ezagutuko dute. Egunderrak izanen da».



GONBITEA

«Euskaltzale guztien topalekua izanen da Lesaka urriaren 15ean. Muga gauda, hurbil, eta egunderrak izanen da».

Maria Luisa ETXEBERRIA
Tantirumairu Ikastolako zuzendari pedagogikoa eta 1978tik irakaslea

Mari Joxe Telletxea eta Pakitto Portu, ikastolaren sorrerako gurasoak

«Bide berri bat hasteko momentua ailegatu zela erabaki genuen»



Mari Joxe Telletxea eta Pakitto Portu, ikastolaren sorrerako gurasoak.

Seme-alabek euskaraz ikastea nahi zuten guraso eta laguntzaile talde baten ekimenez sortu zen Lesakako Tantarumairu Ikastola, 1974. urtean. Ordura arte ezezaguna zen hezkuntza eredu baten aldeko apustua egin zuten haien artean ibili ziren Pakitto Portu eta Mari Joxe Telletxea senar-emazteak.

Telletxeak kontatu duenez, «argi genuen hiru urteko gure semeak euskaraz ikastea nahi genuela. Gure hizkuntzan solas egiten bazekien, baita guk ere, baina zenbakiak ez genituen menperatzen. Mojetan eta eskolan guztia gaztelaniaz erakutsiko zioten. Hortaz, bide berri bat hasteko momentua ailegatu zela erabaki genuen. Gaizki ateraz gero, beti izanen genuen gibelera bueltatzeko aukera. Zorionez, ez zen horrela gertatu».

Garai gogorak ziren, baina laguntza ere izan zuten. Urte haietan herriko apaiza zen On Pablok aunitz lagundu ziela gogoan du Portuk: «euren egoitzako gela batean egiten genituen bilerak, eta gordeka ibiliko bagina bezala sentitzen ginen. Apaiz batzuek ez baitzuten ongi ikusten alternatibaren bidea landu nahi izatea. Bertze garaiak ziren, Franco oraindik bizirik zegoen, eta orokorrean ez zuten onartzen sistemaren aurka joatea. Gauzak horrela ziren, eta punto».

Baina helburua argi zuten: «gure hizkuntzan ikastea beharrezkoa ikusten genuen, gure kultura, gure historia... Urte aunitzetan galaraziak egon zirenak berreskuratu beharrak genituen», diote.

Halaxe hasi zen 43 urteko historia- ren ibilbidea, zazpi ikaslerekin. Inork guttik pentsatuko zuen zazpi guraso haiek ereindako hazi hartatik, halako fruitua

aterako zela, eta tarteka, aitzinera egitea ezinezkoa izanen zela iruditu arren, oztopoak gainditu eta euskaraz ikasi eta bizitzeko euren ametsa egia bihurtu zen.

Ikastola sortu eta lau urtera, 1978an, hasi zen irakasle lanetan Maria Luisa Etxeberria Olano, sortzez Astigarragako. «Nire lehen lana izan zen eta hemen segitzen dut». Gogoan du, hasierako urteetan «material eta baliabide eskasekin» aritu zirela lanean. Horrez gain, «1990ean ikastola egokitu arte, bitokitan egoten ginen. Batzuk Otsogorriean eta bertzeak Alhondigan».

1988ko Nafarroa Oinezek ekonomikoki babes haundia eman zion ikastolari. 1990ean, Ikastolako Batzordeak Cornelia Lekuona Fundazioa kudeatzen duen Patronatuarekin hitzarmena lotu zuen, eta horri esker, 25 urtez, Fundazioaren ondasunak ikastolaren esku gelditu ziren. Tartean, Otsogorrienea eraikina. Hura berritu eta legeak eskatu bezala egokitu ondotik, ikastolak 1991ko uztaillean behin betiko legeztapena lortu zuen. 2011ko abenduan bertze 25 urterako berritu zuten aipatu akordioa.

Geroztik urteak pasatu dira «euskaraz heziz eta euskarari eutsiz». Eta lan hori nabari dela dio Etxeberriak: «Lesakara etorri nintzenean, adineko jendea euskaldun-euskalduna zen, baina gazteria euren artean gaztelaniaz aritzen zen, eta umeekin euskaraz». Gaur egun, ordea, «egoera erabat aldatu» dela dio: «orain, gazteak euskaraz aritzen dira. Eta hori ikastolari esker eta gero eskolan D ereduja jartzearen ondorioz izan da. Euskara da gazteek erabiltzen duten hizkuntza, eta ikastola aitzindaria izan zen horretan».

ARGAZIAK: TANTIRUMAIRU IKASTOLA

1 - Ikastolako lehenbiziko ikasleak 1974an: Eukene, Ainhua, Xabier, Unai eta Edurne. **2** - 80. hamarkadaren hasieran, ikasleak Olentzerorekin kalejiran abiatzeko prest. **3** - 80. hamarkadaren hasieran, ikastolako patioan. **4**. 90. hamarkadaren hasieran, Otsogorrienea obretan zegoenean, Haur Hezkuntzakoak Bittirian. **5** - 2000. urtean ikasleak ikastolako parkean.





Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Bestearena

Mila zurrumurru, mila istorio, mila ezizen, mila gezur. Eta gezur hauen artean egi bat. Baina egiak berdin dio, norberak baitu bestearen egi, eta biribila gainera. Ai...! Zeinen arriskuak diren mingain dantzariak, bazkalosteko berriketak, ezkutuko txutxu-mutxuak. Kontrol soziala diote batzuk, nik diot sadismoa. Moralitatea alde batera geratu zitzaigun denbora atzera, kortesia eta errespetuarekin batera. Inoiz existitu bada. Gozamen ilunari atek irekitzen dizkiogu plazeretan blai, zerriak bezala lokatzezeko putzuan. Baina kontziente al gara kalteaz? Hausnarketari irekitzen al dizkiogu atek? Saiakera-akatsaren bidez ikasten omen da, baina horretarako prest egon behar da. Norberaren inguruan hausnarketa txiki bat egin beharko litzateke geure bertsio hobeago baten bila joan nahi badugu. Eta beharbada, orduan, geure trapu zaharren zergatiaz ohartzen hasten garen egunean, hasiko gara aldamenekoaren trapu zaharrez gutxiago ohartzen. Eta hala, ez ditugu trapu zahar horiek etxean utzi beharko.

«Kontrol soziala diote batzuk, nik diot sadismoa»


Ezpala

Aitor AROTZENA

Venezuela desagertu al da?

Beharbada Espainiako telebista kateak ikustearen ondorio izanen da, baina norbaitek ba al daki Venezuela desagertu ote den? Uda bitarte Caracasko manifak, leherketak, iraultza, Maduroren hitzak... ez zen bertzirik. Orain, Mexikoko lurrikara fisikoa dela, Kataluniako lurrikara politikoa... Ez da hango arrastorik. Kezkaz beterik, komunikabide serioetan hasi naiz bila, Google-en.

Nabarmentzekoak



Fernando ETXEGARAI
Euskal Herriko txapeldun



Miel A. ELUSTONDO
(H)ilbeltza bekaren irabazlea



Domingo ETXANDI
Pilotarien Batzarrak omendu

Euskal Herriko kokor biltze txapelketa 11. aldiz irabazi du Berako kirolari handiak irailaren 17an Larrabetzun (Bizkaia). Iaz bezala, Nafarroan txapeldunorde izan ondotik lortu du.

Batzango Udalak euskal literatura beltza sustatzeko lehen aldiz antolatutako (H)ilbeltza beka deialdira 15 lan aurkeztu dituzte eta horien artean Elustondo azpeitiarrarena aukeratu dute.

Erratzuko pilotaria omendu du Pilotarien Batzarrak Donibane Lohizunen. 1950ean sortua, eskuz aritu zen eta dominak eskuratu zituen 1974 eta 1978ko Munduko txapelketetan.

Atzera begira → 2007-X-18 • LURRA 47 zk.



Onddoei buruzko jakingarriak Joxe Zubieta biltzailearen eskutik

Garaian garaikoa. Horri lotuta, duela hamar urte Lurra aldizkariak onddo eta perretxikoen inguruko informazioa argitaratu zuen. Tartean, Joxe Zubieta Berako onddo-biltzaileak bere esperientzia nolakoa zen kontatzeaz gain, sekretu batzuk ere aitortu zituen. Ultzama eta Irati aldean ibiltzen zen gehienbat, baita Artikutzan ere. «Euria, beroa eta ilargia onddoa ateratzeko beharrezko ezaugarriak dira» aipatu zuen. Onddoak ateratzeko garaiari dagokionez, hone-lazioen: «uztailean eta abuztuan atera izan dira onddo aldi ederrak, baina, nik erranen nuke iraila eta urria direla aproposenak».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Koreatik dator notizia

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»


Korea ere deitzen diogu Alkaiagari. Eta gure auzo honetan ere badira Iparreko Korea, alde batetik, eta Hegoaldeko Korea, bertetik. Bonba atomikorik ez dugu, ordea, ezta bertze kontinente batera ailegatuko den misilik ere. Orain arte ez dugu horien beharrik izan. Ez da berdina Asiako partean gure izen bera duen lurraldea. Izanez ere, hura kontu horregatik famatu da aspaldi honetan: arma potenteak ditu eta, nonbait, horiek probatzeko gogoia ere ez du falta. Ipar Koreako presidentek berriki erran du misil batzuk botako dituela Guam irlaren ondora. Horrela adierazi nahi omen dio Donald Trump amerikarrari kasu emateko, berak ere jakinen duela defenditzen bera atakatzeko badute. Koreak zergatik eman ote dio begia irla horri? Filipinak eta Japonia artean dagoen lur puska hori, gaur egun, Ameriketako Estatu Batuen delakoz. Harrokerietan dabilta bi presidentek, amerikarra eta korearra. Alkaiagarrak ez bezala, haiek bai, bi-biek ba omen dituzte bonba ikaragarriak. Horiek aipatuz espantuka agertzen zaizkigu telebistan eta prentsan egunero. Iduri du ari direla bata bertzeari erraten «nireak hurreak baino handiagoak dituk!». Arma nuklearrak erabiliz, mundua txoil hondatzeko kapaz dira, inolako kezkarik gabena natura suntsitzeagatik edo deusen kulparik ez duen jendea barra-barra hiltzeagatik. Arma saltzaileak bazterretik begira. A ze besta haien zat! Paratu izanen dute xanpaina freskatzen. Zer erranen ote zuen Aita Roman Dornakuk (Bera, 1878 - Hondarribia, 1959) orain bizi izatera? Kaputxino ospetsu hura paraje haietan ibili baitzen denbora luzean. Guameko uhartean, hain zuten ere, hogeita sei urte egin zituen, misiolari. Ezaguna egin zen bertako hizkuntza («txamorroa») ikasi zuelakoz eta haren lehenbiziko hiztegia eta gramatika egin bide zituelakoz, eta elizako liburu mordoxka bat hizkuntza hartara itzuli zituelakoz. Ez omen zen nornahi «Mallonbre»ren semea. Langile porrokatua eta gizon beroa omen zen, lotsarik ez zuena zernahitarako eta pentsatzen zuena edozeini errateko. Haren gisako norbaitek lotu beharko litzuke orain munduaren etorkizunarekin jostetan ari diren presidente astazakil guziak.

«Harrokeriaz dabilta bi presidentek, amerikarra eta korearra. Alkaiagarrek ez bezala, haiek bai, bi-biek ba omen dituzte bonba ikaragarriak. Horiek aipatuz espantuka agertzen zaizkigu telebistan eta prentsan egunero».

Manex astoarekin

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Urte hartako udazken hasieran, hau da, azken atsekabea gertatu eta handik aste batzuetara, mutikoa berriz ere adoretuta zegoenean, arratsalde batean, beren baserri ondoan, auzokoaren belar soro batean, haren asto beltza ikusi zuen Manexek. Asto zaharra euntze maldatsu batean ari zen belarra lasai-lasai jatean; bakarrik, patxadan eta bakean. Pentsaren aldapa ikusita, baserritar txikiak pentsatu zuen, beharbada ez zela batere zaila izanen asto beltzaren gainera igotzea. Halaxe, ba, harantz abiatu zen segituan mutikoa. Langan barna sartu eta pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen hasi zen, lasai eta bestela bezala. Gertu samar zegoenean, Manex goxo-goxo hasi zitzaion hizketan belarri-luzeari, ez uxatzeko. Lau hankadunak ez zuen zirkinik ere egin. Hori horrela, mutikoak hurreratzen jarraitzeko aprobetxatu zuen. -Potx, potx! -esan zion, samurtasunez. Asto zaharrak bazkatzen segitu zuen, deus gertatu izan ez balitz bezala. Hori ikusita, baserritar txikiak konfiantza hartu, astoaren bizkarra lastandu «potx, potx!» esaten zion bitartean, eta momentu egokia iruditu zitzaionean, jauzi arin eta azkar batez, astoaren bizkar gainean jarri zen aida batean. Asto beltzak berdin-berdin jarraitu zuen bere eginkizunetan, jaten, patxadatsu, bizkar gainera hosto arin bat erori izan balitzaio bezalaxe. -Hau egina zegok! -pentsatu zuen Manexek bere baitan, dagoeneko lasaituta. Bi hantekin, sabelean kolpetxo batzuk ematen hasi zitzaion astoari, «arre, arre!» esanez, ibiltzen has zedin; martxan jartzeko. Asto beltzak berean jarraitu zuen, belarra jaten, burua goratu gabe. Mutikoak berriz: -Arre, arre, asto! -ahoarekin soinu zoli egoki bat egiten zuen bitartean, astoa abia zedin. Hala ere, momentuz ez zuen deus ere lortu; animalia belarri-luzea geldirik. Mutikoa dagoeneko urduritzen eta kezkatzen hasita zegoen, asto zaharra gaizki ote zegoen; gaixorik-edo. Baina, halako batean, lau hankaduna esnatu, erreazionatu eta jauzika hasi zen lasterka, dozena bat ezparrak aldi berean eztenkatu izan balu bezala. Burua jaitsi, bizkarra astindu eta ostikoak ematen hasi zen bat-batean; nonbait, berandutxo izan bazen ere, bizkar gainean sumatu zuen zamak ez zion batere graziarik egin. Manex gizagaixoa, horrek guztiak zeharo ustekabean harrapatu eta hantxe joan zen pikutara, hankaz gora, lurreraino. A zer bizkarrekoa hartu zuena, Jainko maittea! Eta hala ere, esan liteke nahiko zorte ona izan zuela, astoak ez ziolako ostikoz jo edota gorputza zapaldu. Hori guztia gertatu eta gero, mutikoak berehala asto zaharra hantxe bertan utzi eta etxera abiatu zen apal eta batere harrokeriarik gabe. Etxean sartu eta mutu gelditu zen; isil-isilik. Inori ez zion hitz erdirik ere esan. Gauen, umil-umilki afaldu eta ohatzera. Gau hartan bai gustura hartu zuela ohea Manexek!



Irakurleak mintzo



Albarreneko kurba eta zaborrak

Izaskun ZUBIALDE
GRAJIRENA (Zubieta)

Zubieta paraje politez inguratuta dago. Lehengo egunean, osteratxo bat egitera atera nintzen eta Bordabolo aldera inguruko koloreez gozatzen nindoa-la, bat-batean, zer ikusiko eta begiteta min ematen duten kolore sorta! Txuria, gorria... Nola liteke gaur egun birziklatze kontzientzia izanda, Albarraneko kurbatik halako zabor pila botatzea? Ez al gara konturatzen zaborra zabortegira bota behar dela? Nola liteke, gaur egun halako sarraskia egitea gure ingurumenari? Buruari bueltak eman eta eman eta ezin ulerturik nabil. Zaborra

bota duenak gauza pare bat edo hiru eduki behar ditu kontutan kasu konkretu honetan; lehenik eta behin, eremu partikular baten sartu dela, bigarren berriz, salaketa bat jartzeko moduko ekintza egin due-la, eta azkenik, eta niretzat garrantzitsuena, gure etorkizuna jokoan jartzen ari dela, eta hori guztiz onartezina da. Haserre nago, oso haserre!

Zakurren paradisu eta oinezkoen infernu

Lesakako Koskontako bidea karrikatik ibiltzen den oinezkoa

Zer irudituko litzaizuke nire eginbeharrak

Bota bertsoa

Jontsu URRUSOLO ELGORRIAGA (Lesaka)

Neurria: Zortziko haundia

Baztan-Bidasoko 30. Bertsopaper lehiaketan bigarren saria (11-14 urte)



Nirekin etorri zaitez

1 Betidanikan bera egon da gurekin batera taldin ongi pasatzen, haserre, triste ez da inoiz izan desberdin baina gurasoen banaketan (eg)in zion aunitz eragin pertsona bakarra baitzegoen ta bi mundu ha(g)itzez ezberdin.

2 Beretzako hau ez da erraza bizitza ari zaio erortzen errekreoan bakarrik dago ta ez da zaila nabaritzen hurbildu nahi dut nik beregana ta saiatu hau konpontzen baina hori egin ta ondoren ez banaute ongi hartzen?

3 Amaitu dira gaurko klaseak joan gara gurasoekin besarkada handi bat eman ta kuadrillarekin bat egin alde guzitara begittu dut ta ez naiz topatu berekin Munduak irentsita zeukala momentu hortan zirudien.

4 Eskolatikan atera da ta nazkatu da itxarotez lurtean jarri da errenditurik hainbeste aguantatzez orduan ez dut izan dudarik beregana ni hurbiltzez belarrira erran diot xuabe Nirekin etorri zaitez.

karrika erdi-erdian egiten banitu? Egin eta aurrera, bildu gabe noski!

Hamaika adjetibo izanen zenituzkete nire jokaera definitzeko eta ez dut uste inork naturalizat joko lukeenik. Badi-rudi, orde, bi edo lau hankako animalia izan aldatu egiten direla batzuentzat naturala denaren eta ez denaren arteko mugak.

Aspertuta nago goi-zero goizero lanerako bidean mina-jokoan ibili beharraz, (deskuido batean pastela zapata azpian lehertzeko...). Nazkatuta arnasari eutsi beharraz, sudurzuloak deskribaezinak diren usainekin ez goxatzeko. Eta sutan jartzen naiz egoera honen ardua dutenak lasai paseoan ikusitakoan.

Zakurren paradisu

eta oinezkoen infernu bihurtu da Lesakako Koskontako bidea karrika. Zeru eta infernuaren arteko muga ez du inongo jainko edo jainkosak zehaztu. Erraza da bien arteko muga non dagoen jakitea: errespetua alde batean, utzikeria bertzean.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Euskaraz eta gaztelaz aritzen naiz: elkarrizketatuari aukera ematen diot berak nahi duen hizkuntzan egiteko. Halere, gaztelaz egitea shock bat izan da: gauza bat da hizkuntza bat egitea, eta beste bat hizkuntza horretan komunikatzea. Banuen beldur puntu bat; gaztelera ez da komunikaziorako gehien menperatzen dudana hizkuntza».

Itziar ALDUNTZIN
Leitzako irati-esataria
BERRIA 2017.09.11



«[Londresen] Gurearen guztiz ezberdina den errespetu batekin bizi dira; ez duzu paper bat botatzen inor ikusiko, ez dituzu jatetxe batean edo metroan ahotsa altxatzen adituko, adinekoak kontuan hartzen dituzte... Guretat adibidea beharko lukete izan eta horregatik diot bidaiatu egin behar dela, eta guretako baligarriak diren gauzak kopiatu».

Ana Mari MARIN
Elizondoko margolaria
D.NOTICIAS 2017.09.26

11 galdera labur

Aurkeztu zure burua.

21 urteko Gartzaingo mutiko alai bat, pilotan aritzea gustuko duena.

Asteburuko plan bat?

Iratzargailuaren soina ez aditzearekin aski! Lagunekin, neskalagunarekin ahalik eta gehien probesten saiatzen naiz.

Bestazalea zara?

Tokatzen delarik bai. Herriko bestetan egin beharko dugu...

Lana bakarrik ez, aurrean ardura ere bai...

Biari gara maiordomo lanetan eta musika taldeekin solastu, edariak erosi... behar izan ditugu bestetan aitzinetik. Bestetan den artea egiten ditugu geratzen diren lanak. Ardura puntua ere badugu bai.

Zer dute berezi Gartzaingo bestek?

Zaharrak, gazteak...denak elkar eta otorduak egiten ditugula. Herri giro berezia sortzen da, hori da guretako berezia.

Bestetako egunik ederrena?

Zikiri jateko eguna. Goizean herri kirolekin hasten da eta gero herri guztia elkartzen gara bazkarian.

Eta ekitaldia?

Zikiri jate eta Baztan zoparik ga-

be ez litzake bestarik izanen! Giro oso polita izaten da. Eta niretako musak ere ezin du falta, gus-tatzen zait aunitz.

Zein da muserako sekretua?

Karta onak tokatzea.

Gautxoria zara edo eguneko besta nahiago duzu?

Egunez hasi eta gauarekin lotzen dugu normalean.

Zer behar duzu zoriontsu izateko?

Ez dut ezer berezirik behar. Zoriontsu naiz, orain nagoen bezala.

Amets bat?

Etorkizunean ere zoriontsu izaten segitzea.



Unai ELIZEGI OTXANDORENA → Gartzaingo gaztea

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 474

MARITX
• Ingeniaritza elektrikoa • Boletín industria
• Proiektu elektrikoak • Instalazio elektrikoak
Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net
MASSIMO ORBEA CONDA SCOTT LOOK

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa
• Kirol Fisioterapia
• Osteopatia
• Masaiaik
• Trafiko istripuetan aholkularitza
• Istripu eta osasun aseguruak
• METODO BERRIA
Umeentzako arnas fisioterapia
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BORTZIRIAK

GIZARTEA → INFORMAZIO ETA LAN SAIOAK EGINEZ

Kontziliaziorako IV. Herri Ituna lantzen hasiak dira

Beran eta Lesakan egiten ari diren informazio eta lan saioen ondotik, urriaren 30ean sinatuko dute Etxalarren

tuak lagunduta, Euala aholkularitza Sozialaren dinamizazioarekin eta horretarako informazio-jardunaldi batzuk antolatu dituzte. Urriaren 2an bi informazio-jardunaldi egin dituzte Beran eta Lesakan. Urriaren 26an, ortzegunarekin, berte lan saio bat egingen da Lesakan eta urriaren 30ean, ituna sinatuko dute Etxalarko Herriko Etxe-an.

Orain arte, itunarekin, batez ere kontziliazioarekin zerikusia duten zerbitzuak (Eguberritako Haur Txokoa, Jubilote-ka), sentsibilizazio kanpainak eta hezkidetzak/erantzukidetasunaren



UTZITAKO ARGAZKIA

Miguel Mari Irigoien eta Jokin Apezetxea, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko presidentea eta teknikaria, Kontziliaziorako Itunaren aurkezpenean.

inguruko formazio ekin-tzak bultzatu dituzte. Bortzirietako Euskara Mankomunitateko ki-deek aipatu dutenez: «emakume nahiz gizonek, arlo pertsonala, familiarra eta lan arloa kontziliatu ahal izateko,

modu berriak diseinatu eta aurrera eraman behar direla uste dugu. Zure ikuspegia txertatu nahi dugu, etorkizuneko jardura eta ekintzak definitzeko».

Kontziliazioak denoi eragiten digunez, eragi-

le ezberdinak gonbidatu dituzte beraien proposamenak biltzeko: Ikastetxe, guraso elkar-te, bertso eskolak, gazte-ak, adinekoak, emakume taldeak, merkatariekarteak, kirol taldeak, kultur teknikariak....

TTIPI-TTAPA

Aurten Kontziliaziorako IV. Herri Ituna indarberritzeko asmoa du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Berdintasuneko Institutu-



Cooperativa del campo - Olaberria auzoa - IRUN
(Danok Anai jatetxetik 700 metrora)
Nekazarien Etxea - Urdanibia Plaza, 7 - IRUN

PIPER ERREEN SALMENTA

LARRAGAKO PIPERRAK (Irunen erretzen ditugu)

- Momentuan erretzen ditugu
- Kontserban nola ipini erakutsiko dizugu
- Nahi izanez gero guk egindakoak eros ditzakezu
- Barietateak: Pikillo, Najerano, Kristal, Piko-Medavia

Zure eskaera etxera eramanen dizugu
(15 kilo gutxienez) Banaketa: asteazkenetan
T. 948 040 094

Tel. 658 880 158
948 040 094

Astelehenetik ortziralera:
08:30-13:00 eta 16:00-19:00
Larunbata: 08:00-13:00

KULTURA → URRIAREN 22AN

Hurbiltzen ari da urriko laugarren igandeko XXXI. Lurraren Eguna

Ohi bezala, bezperan Lizuniagako lgoera eta barazki-opil lehiaketa izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Hurbiltzen ari da urriko laugarren igandea eta Gure Txokoa elkar-teak zehaztua dauka 31. Lurraren Eguneako egitaraua ere. Ohikoa den bezperan, urriaren 21ean, Lizuniagako lgoera egingen dute, argazki erakusketazabalduko da Labiaga ikastolan eta XI. Barazki-opil lehiaketa ere egingen dute Altzateko frontoian.

Urriaren 22an, berriz, eskulangileen eta elikadura azoka, barazki erakusketak, Olakoren erakusketak, tailerrak, Bortzirietako 31. Gasna lehiaketa, 20. Sagardo lehiaketa eta musika emanaldiak izanen dira goizez. 08:00etatik 09:00-

etara erakusketarako barazkiak eraman behar dira Merkatuko Plazara (Illekueta aldean) eta gaztak eta sagardoak Ricardo Baroja eskolara.

Arratsaldeaz, berriz, Altzateko plazan Nafarroako arpana txapelketa mistoa jokatu da eta harri-jasotze erakustaldia. Musika Kuxkux-tu txarangak jarriko du eta bertsolariek gidatutako sari banaketaren ondotik, Oharkabe taldearekin dantzaldia izanen da.

Asteburu honetako ekitaldiak

Asteburu honetan bi kulturekitaldi izanen dira Kultur Etxean. Urriaren 6an, ortzirale arratsaldeko 7etan, Imanol Labururen *Heriotzaren triangelua* dokumentala izanen da ikusgai.

Urriaren 7an, larunbat arratseko 8etan *Erradikalak* gara ikuskitzuna eskainiko dute. Honen sarrera 3 euro kostako da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Martina Etxenike omendu dute Illekuetako bestetan

Giro ederra izan dute Illekueta auzoko bestetan. Larunbat eguerdiko txupinazoa Martina Etxenike Barberena, auzoko adintuenak bota zuen. 90 urte beteak ditu, baina umore ederrarekin segitzen du. Argazkian, familiarekin ageri da. Dantzariak aureskua dantzatu zioten. Lehen suziaren ondotik, hainbat ekitaldi izan zituzten asteburu osoan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Piano eta ahots emanaldi zoragarria Fagoagaren omenez

Isidoro Fagoaga, bada tenorea! izenburupean Beran egiten ari diren jardueren baitan, Isidoro Fagoagaren Lagunak elkarteak antolatutako udazkeneko lehen ekitaldia irailaren azken igandean egin zuten. Javier Perez de Azpeitia pianista beratarrak eta Miguel Olano tenore errioxarrak musika emanaldi berezia eta hun-kigaria eskaini zuten jendez gainezka ageri zen Kultur Etxean. Errepertorio zabalaren barnean, Marijo Bergara Musika Eskolako zuzendariak Isidoro Fagoagari eskainitako pieza ere aditzeko aukera izan zen.

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI
LASAGA APEZTEGUIA

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetrikotik ultralastera

T. 637 40 86 40 - 31780 BERA - andonimabako@gmail.com

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

xirgil
jalane goya

ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

KULTURA → LANAK URRIAREN 31 BITARTE

Argazki lehiaketa antolatu du Beti Gaztek

Erakusketa azaroaren 10etik 30era izanen da

Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteak argazki lehiaketa antolatu du aurten ere, udalaren laguntzarekin. Honela, nahi duten afizionatu guziek har dezakete parte eta lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Beti Gazte elkartearen (Behoko Plaza 9, 31770 Lesaka), gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Argazkien gaia librea izanen da. Egindako argazkiak paperean aurkeztu beharko dira, zuri-beltzean edo kolorean eta digitalki manipulatatu gabeak. Argazkiekin batera, CD bat bidaliko da, aurkezturiko argazkiak edukiko dituen, JPEG formato-

an, 300 pppko guttieneko bereizmenarekin. Egile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezteko ahal ditu eta berak erabakiko du argazkiaren neurria, nahiz eta horietako bakoitzak gehienez 30x40 cm-ko kartulinan jarrita egon beharko duen.

Lau sari emanen ditu Beti Gaztek. Lehenbizikoa, 350 eurokoa eta bigarrena 250 eurokoa. Gainera, herriko egileen artean argazkirik onenari 200 euro eta trofeoa emanen zaio eta sari berezia, 200 euro eta trofeoa kirol argazkirik onenarentzat.

Epaimahaiak azaroaren 10ean emanen du erabakia eta egun berean hasita, azaroaren 10etik azaroaren 30era, erakusketa izanen da Beti Gazte elkartearen egoitzan. Egile bakoitzak bakarrik sari bat eskuratu ahal izanen du.



Ba al zenekien

Nafarroako Antzoki Sareari atxikitako zazpi agertokietan antolatu den Bira-Bira programaren baitan Gorakada taldeak *Titirikontu kontari* emanaldia eskainko duela azaroaren 5ean Harriondoan



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

'Dena ez dela lana beti' ospakizuna Nafarroa Oinezen atarian

Giro bikaina izan zen Nafarroa Oinezek antolatutako *Dena ez dela lana beti* egunean irailaren 23an: Txistularien eta soinularien kalejira, Brun anaien eta Pedro Lanzen Burdinaren erakusketa, toka eta igel txapelketak eta tobera joaldia, sei bikoterekin izan ziren goizez. *Txikiak Handi* bideoa ikusi eta manifestua irakurri eta sinatzeko aukera ere izan zen. Arratsaldean, Emarriko nesken giza-proba ikusgarria, dantzaldia Gabenara taldearekin, paella-jatea, bingoa, eta kontzertuak Afu, Autobus Magikoa eta Kalera taldeekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Luziano Mitxelena Euskadiko txapeldun eta Espainian hirugarren

Iraila ederra izan da Luziano Mitxelena txirrindulari lesakarrarentzat. Irailaren 9an master60 kategoriako Euskadiko txapeldun izan zen Galdakaon Transbidasoa-Euromaster-Inurrieta taldeko txirrindularia (argazkian). Iaz ere kategoria honetako txapeldun izan zen Mitxelena. Irailaren 17an, berri, hirugarren izan zen Colindres-en (Kantabria) jokaturiko Espainiako txapelketan.

Goieko INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK

Zure ingurua klase guztietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erregetgia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 8AN

Usategietako Igandea aste bat lehenago ospatuko da

Larunbatean tortilla txapelketa, afaria eta musika izanen dira

Iruñe ELIZAGOIEN

Lesakan Nafarroa oinez dela eta, usategietako igandea aste bat aitzinatu da, urriaren 8ra. Urtero bezala eguraldiak laguntzen badu, talo postua jarriko du Altxatak Lizaletan. Arratsaldean, berriz, udalaren eskutik Oharkabe taldea izanen da plazan 18:00etatik 21:00etara. Altxatak ostatua jarriko du frontoian eta eda-

riak, bokadilo eta taloak izanen dira. Hala ere, besta bezperatik hasiko da. Herriko gazteek antolatuta, urriaren 7an 18:00etan patata tortilla txapelketa izanen da. Mahaiak frontoian jarriko dituzte baina hirukote bakoitza arduratu beharko da tortilla egiteko behar duen materiala ekartzeaz. 20:30etan afari irekia izanen da. Bakoitzak zerbait ekarri eta elkarbanatuz egingen da afaria frontoian. Tortilla txapelketako tortillak dastatzeko aukera ere izanen da. 20:00etatik 23:00etara Beñat eta Fernandok giroa alaituko dute.



Ba al zenekien

Irailaren 22 eta 23an ETB1eko Gailurra Xtrem programakoak Etxalarren izan ziren grabatzen. GR11 egiten ari ziren etapa ezberdinetan eta Etxalarren geldialdia egin zuten.



ARGAZKIAK: REBEKA ARANZADI ETA JABIER IRIARTE

Karmen Etxalarkoa Pastoral arrakastatsua

Erabateko arrakasta lortuta, hunkiturik, pozez eta lortutakoarekin harro geratu dira Etxalartarrak. Urte osoan egindako lanaren emaitza ona ikusita. Irailaren 16 eta 17an sarrera guztiak salduta, 1.000 ikusle inguru izan ziren egun bakoitzean pastoralaren ikuskizunaz gozatzen. Eskerrak eta zorionak herriari eta proiektu handi hau gauzatzeko lanean aritu diren lantalde guztiei.



ARGAZKIA: IRUÑE ELIZAGOIEN

Lizarietako Tradizioaren besta

Jende aunitz hurbildu zen Lizarietara irailaren 24an. Eguneko ekitaldi guztiak arrakastatsuak izan ziren; horren adibide bazkarian 300 lagun inguru bildu izana. Goizean Isabel Elizalde Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako kontseilariaren bisita izan zuten. Botaluze partidaren Sarak irabazi zuen eta paleta botatze txapelketan txapelduna Sarako Daniel Calvet izan zen, bigarrena Sarako Mattin Oronoz eta hirugarrena Etxalarko Markel Iturria. Taldeka Sarak irabazi zuen.

ANTZUZELAI S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK

Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587

Irungo errep. BERA

www.antzuzelai.com

info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertzaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

Manterola

Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

629 449 602

USOA

Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214

ETXALAR

- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

ZONALDEKO FORCE CAM BANATZAILEA

XAGU LIBURUDENDA

INTERNETEKO EROSKETEN BILKETA ETA ITZULKETA ZERBITZUA

celeritas

allí donde tú quieras

Amazon
Corte Ingles
Zalando
Fnac
Kiabi
Philips
...

Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

Tel. / Fax 948 638 232

ARANTZA

KULTURA → URRI AKABAILAN ETA AZARO HASIERAN

Udazkeneko kulturaldia prestatzen ari da Euskara Batzordea

Aurtengoa 22. Baserritarren Eguna izanen da

Nerea ALTZURI

Udazkeneko lehenbiziko egunetan gaude. Irala giblean utzi eta urriruko egunetan sartuak gara. Ingurua urte sasoiako koloreekin jauntzi da eta Euskara Batzordea udazken ukituko urteroko kulturaldia atontzen ari da. Hasiak dira batzordekideak teknariarekin biltzen eta jakinarazi digutenez, urriur akabailan eta azaro hasieran izanen dira.

Azaroaren leheneko Baserritarren Eguneko antolakuntzaz Ekaitza Elkartea arduratzen da. Aurtengoan, 22. edizioa izanen da.

Gainerakoan, urriaren 28an, *Baga, Biga, Higa* emanaldia eskainiko dute Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta musikari eta kantariak. Euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena helburu ditu eta multimedia formatuko solasaldi-kontzertua izanen da, biek izanen baitira hizlari, musikari eta kantari.

Urriaren 29an, berriz, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktore ezagunek *Putinen guardasola* antzezlan eskainiko dute. Horrez gain, haurrentzako ekitaldi bat ere izanen da kultur egunetan. Xehetasun gehiago heldu den aldizkarian emanen ditugu.

Jardunaldi gastronomikoak

Baztan-Bidasoko Turismo Elkargoak ehizari

ESKOLATIK KANPOKO EKINTZAK

Txapelketetan parte hartu nahi dutenentzat bi entrenamendu egun eskainiko ditu pilota eskolak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aitzineko ikasturtean 22 neska-mutiko ibili ziren pilota eskolan. Ondotik, herriko txapelketan parte hartu zuten, eta sariak eta oroigarriak Oinatz Bengoetxearen eskutik jaso zituzten bestetan jokatuako finaletan.

Joan den urtean pilota eskolak izandako arrakasta ikusita, aldagetekin hasi dute ikasturtea pilota eskolako neska-mutikoei aste honetan. Iaz haur kopuruak izandako gorakada ikusita, arduradunak eta irakasleak gehiago izanen dira, borts lagun, hain zuzen: Juanjo Altzuri, Aratz Mendizabal, Inaxio Mada-riaga, Unai Iparragirre eta Xabier Elizalde. Lehenbiziko laurak astelehenetan ariko dira eta Xabier ortziraletan. Orain arte, urritik maiatzera, astean behin izaten ziren entrenamenduak, ekainean herriko pilota txapelketa hasteko. Ikasturte honetan, neska-mutiko guztiak astelehentan ariko dira, 16:00etatik 20:00etara, lau taldeetan banatuta. Baina horrez gain, txapelketetan aritu nahi duten haurrek bertze entrenamendu egun bat ere izanen dute, ortziraletan, 17:00etatik 19:00etara. Aurten 30 bat neska eta mutilek eman dutela izena pilota eskolan. Eta aipatzekoa da, joan den urtean, lehenbiziko aldiz, neskek ere parte hartu zutela herriko pilota txapelketan.

Baina pilota eskolaz gain, haur eta gaztetxoek eskolaz kanpoko jarduerak gehiago ere badituzte aukeran. Karatea, adibidez, astearte eta ortzegunetan dute, 19:00etatik 20:00etara, hip-hop ortziraletan 19:15etik 20:15era. Horiez gain, lerro hauek idazterakoan oraindik ordutegia finkatua gabea zuten euskal dantzak, trikitixa eta pandereta eta bertso eskola ere badituzte herrian berean.

Helduentzat, berriz, bertze urte batez, Ana Larretxea herriarraren eskutik Kardiofit izanen da, asteazkenero 17:30etik 19:00etara.

buruzko jardunaldi gastronomikoak antolatu di-

tu urriaren 12tik azaroaren 30eraino. Tartean, Bur-

lada eta Aterpe jatetxe-ek parte hartuko dute.

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

CASAS IPARLA
Bungalow eta neurritan egindako etxe nordikoak
Ubela Pol. 4 | 31780 BERA | M. 636 069 754

GIZARTEA → DANTZA TALDEAK 25 URTE BETE DITU

Gazta lehiaketa eta pilota txapelketa jokatu dituzte besten aitzinetik

TTIPI-TTAPA

Aurten ez dute Artzain Zakur lehiaketarik egin besten aitzineko asteburuan, baina hala ere ekitaldiz betea joan da. Biltokik antolatutako XII. Gazta lehiaketa-
ra hamar gazta aurkeztu zituzten eta horien artean, Argarateberek Mari Jose Lizardirena izan zen irabazlea, Goiz-

Argiko Amalia Seinek lortu zuen bigarren saria eta Txori-Tokiko Juxta Seinek hirugarrena. Ardo dastaketa ere egin zuten. Aitzinetik, ortzira-
lean Txipitinea ostatu berritua inauguratu zuten eta jende aunitz bildu zen ospakizunean.

Pilota goxo txapelketan, Unai Telletxea eta Patxi Loiarlek osatuta-

ko bikotea izan zen irabazlea, Eneko Telletxea eta Joseba Bertizi finalean irabazita.

Larunbat ilunabarrean herriko dantza taldearen emanaldia izan zen, eta ia 100 dantzari bildu ziren. Aurtengoa dantza taldearen 25. urteurrena da, eta dantzariak bota zuten San Migel bezperako suziria.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Gazta lehiaketa eta pilota txapelketako saridunak.



ES 025

BEROPEL

egurrezko pelleta

ECHEVESTE HNOS. SL

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAHA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com

www.echevestehermanos.com



SUNBILLA



ARGAZKIA: IRUNE AGIRRE

Mus txapelketako lehenbiziko lau bikoteak.

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 16AN

Giro ederra izan zen Ulibeltzak Elkartearen besta egunean

Sei bikoteren artean Jose Luis eta Jose Martin Agirre anaiek irabazi zuten mus txapelketa

Maidar PETRIRENA

Ulibeltzak Elkarteko besta izan zen herrian irailaren 16an. 10etan

mus txapelketarekin hasi zen eguna. 6 bikotek soilik parte hartu bazuten ere, giro ederrean pasatu zuten goiza. Sailkapena: 1. Jose Luis Agirre-Jose Martin Agirre, 2. Rakel Urtxegi-Edurne Urroz 3. Lucio Irazoki-Iker Espelosin, 4. Txus Rekarte-Ruben Irigoien. Eguerdiko 2etan bazkaria eta ondoren Salaberri akordeolariarekin musika



ARGAZKIA: ENEKO HERRERA

Herriko dantzarien bederatzigarren jaialdi arrakastatsua

Irailaren 22an herriko dantzariak antolatutako bederatzigarren dantza jaialdia ospatu zen herriko frontoian. Ordubete inguruko ekitaldi polita izan zen. Zorionak parte hartu duten dantzari guztiei eta eskerrik asko irakasle, musikari eta dantzari guztiei.



ARGAZKIA: KARMENTXU ANZIZAR

Arkupeak elkartekoak Avilan

Irailaren 18an Sunbillako kuadrilla ederra Arkupeak Elkarteko antolatutako Salamankarako bidaiara joan ziren. Argazkian Avilan ageri dira.

izan zuten gaueko 10ak bitarte. Giro paregabea izan zen elkartean bertan eta hemendik eskertu antolakuntza lanetan ibili ziren guztiei.

Ba al zenekien

Kenpo-Kai ezagutu eta parte hartu nahi dutenentzat ate irekien eguna izanen dela urriaren 6an, ortziralean 16:15ean frontoian. Horrez gain eskolaz kanpoko jarduerak urrian hasiko dira.



SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo t.948 63 08 99
31780 bera (navarra) www.sarobe.net

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

ERREKALDE
OSTATUA

PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOXATXAK

IFAPA: 948 630 259
BERA

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK

Kultur ondare izendatuko du bertsolaritza

«Nafarroan ongien gorde den eta azpimarragarriena den errepentismoa»

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak bidea ireki du bertsolaritza Kultur Intereseko Ondasun izendatua izan dadin, ondare materiagabe gisara. Modu horretara, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legean adierazitako babes maila gorena jasoko du bertsolaritzak. Hala, egun, Lantzeko inauteriek, Ituren eta Zubietako

ko inauteriek, Hiru Behien Zergak, Luzaideko Bolantak eta Cortesko paloteadoa osatzen duten zerrendara gehituko da bertsolaritza.

Nafarroako Bertsotzale Elkarteak urte hasieran egin zuen izendapenerako eskaera, bertsolaritzak herrialdean izan duen eta duen presentziari buruzko informazio xehatua aurkeztuz, Alfredo Asiain Ansorenaren txosten batekin osatua.

Nafarroako Gobernuak izendapenaren berri emateko kaleratutako oharren arabera, «Nafarroan ongien gorde den eta azpimarragarriena den errepentismoa» da bertsolaritza.



Urriak 5 / OSTEGUNA

19:30EAN · IRUÑEKO SUBERRI TABERNAN



Urriak 11 / ASTEAZKENA

19:30EAN · IRUÑEKO HERRIKO TABERNAN



Urriak 20 / OSTIRALA

20:30EAN · BARAÑAINGO GAZTETXEAN

XALTO SARIAREN ORDEZKO ANTOLATU DU BERTSOZALE ELKARTEAJK

18 bertsolari ariko dira Bertsokabi sariketan

TTIPI-TTAPA

Goitiko irudian ageri diren bederatzi bertsolari bikote horiek parte hartuko dute Bertsokabi-Eugenio Arraiza Sariketan. 16 eta 30 urteko bertsolariak dira eta Iruñerriko publikoa –bereziki gazteak– bertsolaletzeko xedea du sariketarak, bertsoa hiriburuko eremu informaletara eramanez.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

DONEZTEBE

KULTURA → URRIAREN 13AN, ORTZIRALE ARRATSALDEKO 7:30EAN AURKEZTUKO DU LIBURUTEGIAN

‘Doneztebe pilotari’ liburua idatzi du Tiburcio Arraztoak

320 orriko lan mardula, 220 argazki bilduz

Marga ERDOZAIN

Arraztoak bere azken liburu honen inguruan honako hau dio: «Doneztebek pilota arloan iragan ospetsua, oraina bikaina eta etorkizun baikorra dauka. Eta gainera, euskal pilotak dituen modalitate guztiak ezagutzen ditu. Liburuan Donezteben pilotak izan duen historia eta bilakaera erakutsi nahi izan dut, historia luzea eta aberatsa du eta. Modalitate bakoitzaz aztertzen da eta hortaz aparte, Bear Zana plaza eta Bear Zana pilotalekua, herrian dauden gainerako pilotalekuek, Donezteben jokatu diren Munduko Pilota Txapelketak, esku-larrugileak, pilotak eta kulturak izan duten lotura, pilotarekin zerikusi duten hainbat pertsonaia... Hori dena 18 kapitulutan eta 320 orritan banatuta. Liburua

gainera 220 argazkiz osatuta dago».

II. UDAZKEN LITERARIOA

Elixabet Badiolaren *Aita, aún quedan nuevas* eta *Doneztebe Pilotari* liburuak dira II. Udazken Literarioaren hasmentako aurkezpenak. **Urriaren 27an**, 20:00etan liburutegian Patziku Perurenak Basajaun pertsonaiari buruzko solasaldia eskainiko du. **Azaroaren 10ean** *Lau estazio, lau emozio* emanaldi poetikoa (Ortzi Oihartzabal biolinjoleak eta Jon Garmendiak sortutako emanaldia); **azaroaren 24an** Miren Lantzek *Gogoratzen nauzuenetan* idatz-laburren bilduma aurkeztuko du azaroaren 25eko ospakizunen barrenean. **Abenduaren 1ean** Luis Gardek aurkeztuko du bere azken poema liburua, *Barbaroak baratzean*. **Abenduaren 10ean** Iñaki Perurenak ematen dio akabaila zikloari, *Harria maitasun istoria* emanaldia eskainita.



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

Tiburcio Arraztoa bere azken liburuarekin Bear-Zanan.

Herrigune historikoaren Hirigintza Plana akitu dute

M. ERDOZAIN

Herrigune historikoaren plan urbanistiko berria labean dago. Hemendik aitzinera urrats hauek pasa beharko ditu: Vianako Printzea erakundeko teknikariek oniritzia eman behar diote. Gero, herritarrei aurkeztuko zaie iradokizunak edo erreklamazioak egin ditzaten. Ondoren, udalak behin behineko onarpena ematen dio. Trafikoaren antolaketa, eraikinen zaharberritze plana... hori dena ahalbidetuko du plan honek.

FLASH

Gaita eta atabala ikastaroak

Udalak bultzatzen duen agenda ekimenaren barrenean bi ikastaro interesgarri eskainiko dira: gaita eta atabala. 40 orduko ikastaro hauek bertako musika eskolan larunbatetan izanen dira. Interesatuak *alkatetza* @doneztebe.eus helbidera idatziz edo 615567458 telefonora deituz informazioa jasotzen ahal dute.

Gure Esku Dago bizikleta martxa

Bizikleta martxa urriaren 14an, larunbatean, egingen dute. Doneztebetik abiatuko dira Bertizko parkeraino, bertan hamaiketako egingen dute eta, ondoren, berriro Doneztebera itzuliko dira.

Mendi Ttiki Abesbatza

Malerrekako 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta Mendi Ttiki abesbatza sortzeko asmoa dute, Mendi Abesbatzaren babesean. Proiektua aurkezteko bilera irailaren 29an egin zen. Ruth Etxebestek eta Itziar Irigoienek zuzenduko dute abesbatza.

Construcciones URBALLO, S.L.
hargin lanak orokorrean

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teiltueta esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukulak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

Bar Amertia Ostia

ZERRIKUME ERREA ENKARGUZ

Bertan jateko
Entsalada eta ogiarekin
75€
Eramateko
65€

T. 948 450 028
Doneztebe

ETXEKO ESPEZIALITATEA

PIO NAVARRO

616 513 497

Pitties

ESKABAZIOAK

ONGI PASA BESTAK!

ESKABAZIO eta GARRAIO LANAK

TIF 948 451 389
Ezpelura, 1 · **DONEZTEBE**
pittieskabazioak@hotmail.com

KULTURA → URRIAREN 7AN SERGIO DE ANDRES MAGOAREKIN

Magiarekin abiatuko da Kultur Bira Oizen

Ezkurran, Elgorriagan eta Legasan ere izanen dira emanaldiak

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, eta Oizko, Ezkurako, Elgorriagako eta Bertizaranako udalek Malerrekako Kultur Bira antolatu dute. Kultur biraren bosgarren edizioa da eta honetan ere programazio erakargarria eskaini nahi izan diete

Malerrekako eta inguruko bizilagunei.

Urriaren 7an, larunbat arratsaldeko 5etan, Sergio de Andresen *Magikus* magia eta ipuinen emanaldia izanen dute Oizen.

Mago xistera batean ipuin hauts batzuk, magia pixka bat eta txiste tanta batzuk nahasten baldin baditugu Sergio de Andresekin batera, magikoki ilusioz beteko gara eta ederki barre egingo dugu. Eta untxia aurkitzen duenak itzuli diezaiola, gizajoak azkenekoan galdu eta ez du

geroztik aurkitu.

Urriaren 14an, Ezkurran bi ekitaldi izanen dituzte. Larunbat arratsaldeko 5etan DJ Porru, bereziki haurrei zuzendutako ikuskizun dibertigarria izanen da. Familia giroan ongi pasatzea da DJ Porruren helburua, abesti eta dantzekin. Arratseko 8etan berriz, triki-bertsotso-afaria egingen dute Barranka Ostatuan, Iker Zubeldia eta Iban Ur-dangarin bertsolariekin. Izen-ematea urriaren 10a baino lehen egin behar da 948 615098an.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sergio de Andres magoa izanen da igandean Oizen.

Urriaren 21ean, larunbat arratsaldeko 6etan Pepa ta Kutxo bi-kotearen klown ikuskitzuna izanen da Elgorriagako Kultur Etxean.

Urriaren 28an, azkenik, Ameli ipuin-kontalaria izanen da Legasa-

ko eskolan: larunbatean 11:00etan, 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat eta 12:30etan, 7 urtetik goitikoentzat. Ameli ipuin kontalaria herriz herri, ipuinak ametsen josten aritzen den neska gaztea da.

1. faseko azken etxe eta lokalak **SALGAI!**

ETXEBIZITZA BERRIAK **DONEZTEBE**

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin

✓ **RURAL KUTXA**ren babes eta laguntzarekin

✓ Salmenta zuzena: **PROMOTOREAK GARA**

✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin %15eko desgrabazioa errenta aitortuenean

135.000€tik aurrera

Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170

ZUBIETA

OSPAKIZUNA → URRIAREN 6AN ETA 7AN ANTOLATU DUTE HERRIKO GAZTEEK

Euskararen Eguna ekitaldi eta erronka berriekin dator

10 kanaerdiko moztu eta Loitzateko atakara joan beharko du Palaxiok

Fermin ETXEKOLONEA

Gazteek programa polita osatu dute aurtenera Gazteen Egunerako. Berrikuntza eta erronka politak izanen dira gainera.

OSTIRALA, URRIAK 6

- 18:00 pintxo lehiaketa herriko estalpean.
- 19:00 triki-poteoa herriko trikitilariekin.
- 22:00 mus txapelketa herriko Ostatuan.
- 22:30 Lamiak taldearen kontzertua Errandoneko atarian.
- 23:30 Karaokea Errandonean.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Beti bezala eskulangileen lanak ikusteko eta ikasteko aukera eskainiko du Euskararen Eguna

LARUNBATA, URRIAK 7

- 10:00etatik aurrera herriko artisauek beraien lanak erakusten eta gazta eta urdaiazpikoaren postua. Beti bezala, pisua edo hurbiltzeko aukera izanen da.
- 10:30 herriko buelta herriko trikitilari eta pandero-joleekin.
- 11:00 Mikel Indakotxea 'Palaxio' kirolariaren erronka: hamar kanaerdiko moztu aizkoraz eta Loitzateko atakara joatea.
- 12:00 dantza luzea.
- 13:00 joaldunak.
- 14:30 kantu bazkaria Azpeitiako trikitilariekin. Arratsalde, haur eta gaztetxoendako

- mahai-joko erraldoiak, aurpegi-margoketa eta txokolate-jatea.
- 20:00 gazta eta urdaiazpikoaren sari bana-ketak.
- 20:30 irrintzi lehiaketa.
- Arratsalde eta gauetz musika izanen da Oharkabe taldearekin, besta akitzeko.

FLASH

Itturri Bertsolari Txapelketa

Nagusian kantari

Herritar batek lehenbiziko aldiz historian Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu du. Joan den larunbatean aritzekoa zen Ander Fuentes 'Itturri' Segurako final-laurdenetako saioan. Beñat Iguaran, Felix Zubia, Jon Martin, Nerea Elustondo eta Unai Gaztelumendi izan zituen oholtza-lagun.

Mieltxo Mindegia Nafarroako lehen mailako finalean

Mieltxo Mindegia azaroaren 17an Doneztebeko ferietan jokatu den Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finalean izanen da. Uhartan jokaturako kanporaketan hiru garren izan zen, Iker Vicente eta Jon Recondoren atzetik eta Ruben Saralegi eta Joxean Etxeberriaren aurretik.

ORBELA
SUNDERSHIMA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttppi.eus

ALGARVE Abenduaren 3tik 8ra Taldekako irteera IRUÑETIK	TOSCANA Abenduaren 2tik 6ra Hegaldi bereziak IRUÑETIK	DUBAI Abenduaren 2tik 6ra Hegaldi bereziak IRUÑETIK
MARRAKECH Abenduaren 2tik 9ra Hegaldi bereziak IRUÑETIK	PORTUGAL Abenduaren 1etik 6ra Lisboatik Oportora Hegaldi bereziak IRUÑETIK	MUNICH Abenduaren 2tik 6ra Bavaria ikusgarria Hegaldi bereziak IRUÑETIK

Viajes
SARASATE
C.I.N.A 022
ABENDUKO ZUBIA
San Fermin, 37
IRUÑEA
Tel.: 948245475
www.viajessarasate.com

GIZARTEA → TALDE TTIKIETAN ELKARTZEN DIRA MINTZAMENA HOBETZEKO

Ikasturte honetan ere martxan jarriko da Solaslaguna egitasmoa

Euskara maila hobetzeaz gain ongi pasatzen dute doako programan

TTIPI-TTAPA

Ikasturte honetan ere martxan jarriko da Solaslaguna egitasmoa, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzeko doako programa.

Malerrekako, Bortzirietako eta Baztango Solaslaguna 2007an sortu zen. Solaslaguna programan euskarazko mintzamena hobetu nahi duten hiztunak (bide-lariak), txukun hitz egiten dutenekin (bidelagunak) elkartzen dira talde txikietan, astean behin eta gutxienez ordu batez. 2016-17 ikasturtean, Baztan, Bortzirietako eta Malerrekako 100 solaslagunek eman zuten izena eta 21 talde osatu ziren. Aurtengo helburua datu horiek mantentzea dute.

Izen emateko eperik ez da eta nahi denean apunta daiteke. Informazio gehiago Solaslagunaren Txokoan (solaslaguna@topagunea.eus edo 610 920673 telefonoan), Bortzirietako, Malerrekako eta Baztango euskaltegietan, baita Bortzirietako Euskara Mankomunitatean eta Malerrekako Mankomunitateko eta Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuetan ere.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

laz Donezteben egin zuten Solaspotea; aurtan Bortzirietan.



Zure Aseguru guztiak elkartuta, etorkizuna kolorez beterik dator



Elkartu zure Aseguruak Rural Kutxarekin eta lortu

1.000€-ra bitarte Opari Txartel batean

Lasaitasun Tarifa Lauarekin, abenduaren 15a baino lehen

2017ko irailaren 15etik abenduaren 15era, bezeroek -hau da, pertsona fisikoek- Rural Kutxako Opari Visa Txartel bat eskuratzeko dute, baldin eta gutxienez sustapenean diren aseguru bati kontratatzen badituzte, edo poliza bakar bat, berrera sustatutako aseguru bati jada kontratatuta badute kanpaina hasi aurretik, baldintzekin bat. Elkartzeko bi poliza bakarrik onartzen dira aseguru berekoak. Elkartzeko aseguru kopuruaren arabera ezarriko da Opari Visa Txartelaren zenbatekoa, txartel bakar bat erretzeko da hartzaile bakoitzeko, txartela erabili ahaliko da Visa onartzen duten denbora guztietan eta sei hilabeteko iraungipena du. 1.000 €-ko Opari Visa Txartel bat eskuratzeko da, kontratazio berriko 6 aseguru edo gehiago elkartzeari Lasaitasunerako Tarifa Lauarekin. Kanpo geratzen dira kontratazio berriko polizen ordetzak. Hona hemen aseguru sustatutako eta Opari Txartela eskuratzeko gutxienezko urteko prima garbieraren zenbatekoa: kontuan hartuta polizak urtero berritatzeko direla. Arriarko Oroharako Etxe Asegurua, 150€-ko primarekin; Heriotza Asegurua, 150€-ko primarekin; Istripu Asegurua, 100€-ko primarekin; Bizia Asegurua, 200€-ko primarekin; Lasaitasunerako Tarifa Laua: Lasaitasunerako Tarifa Laua eskuratzeko aldera, urteko prima garbieraren zenbateko osoak gutxienez 240€ izan behar du, zenbat aseguru elkartu diren alde batera utzita. RGA Seguros Generales S.A. eta RGA Rural Vida S.A. etxeekin kontratatutako produktuek soilik konputatzeko dute. Auto Aseguruak izan ezik, beste aseguru-erretze batzuekin kontratatutako baina. Sustapena iraupen kontratutari dagio lotu. Opari Txartelaren zenbatekoa kapital higabieraren errendimendutaz jotzen da, eta Opari Txartela erretzeko den uneko legedia indarluaren aztertutako atzerapenari dagio lotu. Reginatu gainerako baldintzeki sustapenean onartzen; onartatzen Rural Kutxak zure bulegoan dituzte eskura.

NA: 0917. Sustapenean sarturik dauden Aseguruak: Bizia Asegurua, Aseguruen eta Berraseguruen RGA Rural Vida S.A. etxearekin kontratatutak. RGA: A-78 229 863, eta DGSPren gakoak: C-595, Etxe, Istripu eta Heriotza Aseguruak, Aseguruen eta Berraseguruen RGA Seguros Generales Rural S.A. etxearekin kontratatutak. RGA: A-78 524 663, eta DGSPren gakoak: C-616, Auto Asegurua, Liberty Seguros etxearekin kontratatutak. RGA: A29461994, eta DGSPren kodigo: C-468. Asegurak RGA Mediacion, Operatzaile de Banca Seguros Vinculada, S.A. etxearen bitartez merkataritza diren beldioak. Madril, Susegarri 1, 14 eta DGSPren bitartez merkatariaren erretzaren 09-0006 gainera inaktibatu, eta Madrilgo Merkataritza Erregistroan inaktibatu. Liburak: 8505, Faxak: 89, Alaba: 8, Orria: M10188, RGA: A79490264, Rural Kutxa, zehazki, RGA Mediacion OSK S.A. etxearen banaketa-sarean dago sarturik. Kontratatu web honetan zehar aseguru-erretzaren duen RGA Mediacion etxeak aseguru-agintzako kontratu bat: www.segurosrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf.



ITUREN

GIZARTEA → TABERNA ETA ETXEBIZITZA ERRENTAN

Herriko ostatua errentan hartzeko lehiaketa deitu du udalak

Proposamenak urriaren 5era arte

Arkaitz MINDEGIA

Herriko Ostatuak atekak itxi ondotik, lehiaketara publikora atera du Udalak. Herriko Ostatuko taberna eta jatetxe zerbitzua eta kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitza errentan hartzeko aukera dago. Proposamenak aurkezteko epea urriaren 5ean 14:00 etan bukatuko da.

Kontu-hartzailearen lanpostua

Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Udalen batasuneko kontu-hartzaile berria Naia-ara Arrechea Gorosterra-zu izanen da.



ARGAZKIA: IXIAR BAZTERRIKA

Giro ezin hobean ospatu zuten Joaldunen Eguna

Joaldunak eta trikitilarien doinu alaiek, Kañamarek eta Mindegiaren arteko aikora apustuak, bertso bazkariak eta Salaberriren musikak besta egun borobila osatu zuten irailaren 23an.

Herritarrak bertsoan

Datorren urriaren 5ean hasiko da Bertsoakabi Eugenio Arraiza sariaketa eta bertan 18 bertsolarik parte hartuko dute

eta horien artean Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalo ariko dira Iruñeko Suberri tabernan.

Maika bigarren

Irailaren 17an jokatu zen

Larrabetzun Euskal Herriko kokkor biltze txapelketa. Maika Ariztegi herritarra, iaz bezala, txapeldun orde izan zen.

Informazio gehiago kirol orrialdeetan.

FLASH

Dantza ikastaroa

Urriaren 6an martxan jarriko dituzte dantza ikastaroak eta iazko ordutegiak mantentzeko asmoa dute. Apuntatu nahi duena hurbildu dadila urriaren 6an Herriko etxeko ganbarara edo Miren Seini deitu.

Guraso Elkartean aldaketa

Irailaren 26an Guraso Elkarteko bilera egin zuten eta ordezkari berriak aukeratu zituzten. Pasa den urte-tik Itxaso eta Aitziberekek karguan segiko dute eta Diana eta Maiteren ordeiz Jaione Iri-sarri eta Sara Artieda sartu dira.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com





Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzeko bitartekoak

BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU



**PVC-zko sistema bakarra*
Passive house ziurtagiriarekin
BETIKOn daukagu.**

**6 kamara 82 mm-ko profila
Merkatuko isolamendurik
hoberena.**

A+++




* 70 mm

UDAZKEN

NEGUKO

MODA 17-18

Udako egunek udazkenekoei leku egin diete eta arropa eta oinetako arinak alde batera uzteko garaia da! Horregatik, udazken eta neguko modako joerak hizatu ditugu zuentzat; kanpoan izan euri, laino, eguzki edo haize, **moda-modan ibil zaitezten!**




HAURRAK

Milaka abentura bizi behar dituzte etxeko ttikienek eta horretarako, jantzi erosoak behar dituzte. **Denima, algodoia, tulezko gonak eta laukidun alkandorak** daude modan, baita **eskuz margotutako irudiak eta diseinu marradunak ere**. Koloreei dagokienez, **gorria, plateatua, zilarra, urdina eta berdea** izanen dira nagusi.



Laukiak, dizdirak, estanpatu dibertiga - rriak, kolore deigarriak eta diseinu zoroak. Neguak ere badu gatzeta eta piperra!



IBARROLA
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 • Doneztebe
948 450 463

LARUNBAT ARRATSALDETAN IREKIA

B-KARO Pimbelina mayoral 3pommes Kiriki moda infantil tuc tuc

ARROPA KONFEKZIOAK
MARI CARMEN

Braulio Iriarte 22 (Txokoto) ELIZONDO - T 948 580 883

Pauso bakoitzean gozatzeko

OINETAKOAK

EMAKUMEZKOAK

Bota altu-altuak, kirol itxurako oinetakoak eta plataformak ikusiko ditugu erakusleiho guztietan, baita eraberrituta datozen **motorale** eta **Cowboy** itxurako botinak ere. Ohi-koloreekin batera, gorria indartsu dator aurrean, baietaz begirada guztiak erakarri!



GIZONEZKOAK

Egunerokoan edo hitzordu berezietan, eroso bezain dotore ibiltzeko **Chelsea** botinak, kirol itxurako oinetakoak eta lokarri-dun botak proposatu dituzte. Beltza eta marroia izanen dira oraingoan ere kolore izarrak, baina urdina ere indartsu dator.



Santiago, 32 | ELIZONDO
Tel.: 948 580 209

www.calzadosvirgilio.com



GIZONAK



Belzunegui
DESDE 1901

Emakume eta gizonen moda - Etxeko arropa



Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

Iazko joerei tiraka

Berrikuntza handiegirik gabe osatu dituzte gizonen zientzako udazken-neguko moda proposamenak. **Jakek** garrantzia handia izanen dute eta temperatura desberdinetara egokitzeko, **poliester**, **nylon** edo **algodoizko bomberrak**, **jaka bakeroak** eta **larruzkoak** erakusleiho guztietan ageri dira. Horiekin batera, indartsu datoz **lumazko berokiak**. **Laukidun atorrak** izanen dira modako bertze jantzia eta baita **jertse lepodunak** ere, tonu gorrixka eta berdeetan. **Grisa** da ezinbertzean aipatu beharreko bertze kolorea, beltzaren tokia hartzen ari da eta.




MERCHE MODA NOVOS

RAMON SANJURJO
ROY ROBSON
FUENTECAPALA

Serapio Múgica, 11 • 20302 IRUN
Tel.: 943 612 626

www.capeleimmercheirun.com





ZATOZ VENTA PEIORA MODA EZAGUTZERA

3 POMMES BENZI BELLOSTA MORLANS BMSAK CALVIN KLEIN CONVERSE DELSEY DENIM & SUPPLY DESIGUAL DOCKERS EA7 ARMANI EASTPAK ESPRIT G-STAR HACKETT HELLY HANSEN HILFIGER DENIM I.CODE IKKS JACKS&JONES KAPORAL KOCCA LACOSTE LACOSTE LIVE LEE LEVIS LOLLIPOPS LOREAK MENDIAN MANGO NAPAPIJRI NORTON ONLY ONLY PLAY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PROMISE RALPH LAUREN RELISH RIP CURL SAMSONITE SELECTED SUPERDRY THE NORTH FACE TOMMY HILFIGER TRANGOWORLD TRESPASS VANS VERO MODA VIOLETA WRANGLER

PEIO
mode

WWW.venta-peio.com

Tel : +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin



EMAKUMEAK

Temperatura aldaketei aurre egiteko prest

Datozen hilabeteetan eguraldia bezala, aldakorra izanen da gure janzkera; jantzi arinak baztuetan eta beroki lodiak berteetan. Modako adituek ere zubi lan hori egiteko **kolore beroak (gorria, laranja...)** eta **estanpatu lore-dunak edo motadunak** proposatu dituzte. **Denim-a** ere indartsu dator, tonu desberdinetako piezak elkartuz. Baita lumak ere, berokien betegarri edo jantzien apaingarri gisara. Formei dagokionez, **diseinu zabalak eta luzeak** nagusituko dira.



Eskuratu zurea...

1. XXL poltsak.

Zenbat eta handiagoa hobe. Horixe izan da moda adituek egin duten apustua. Hainbat material eta kolore izanen dituzue aukeran.



2. Belusa.

Belusa edo tertziopeloa ezinbertzean soinean eraman beharreko ehuna da. Jantzi, osagarri edo oinetakoe-tan ez da faltako.



3. Marinel itxura.

Inguruan itsasorik ez izan arren, marinelen jantziak izanen dira inspirazio iturri. Jakak, gerrialdean lotzen diren galtzak, kolore urdina eta gorria...



4. Belarritakoak.

Borla, zintzilikario, hari... koloretsuekin osatutakoak, zenbat eta handiagoak hobe. Ez itzazu etxean ahaztu!



Maite moda

Kale Nagusia,
4 behea
DONEZTEBE
T. 948 450 727
f Maite Moda

smash!
happy business style

MODA ETA OSAGARRIAK

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

BEHAR DUZUN GUZTIA

facebook

NOBEDADEAK
Facebooken.
Egin zaitez
gure lagun!!

Amezitia DONEZTEBE · T. 948 450 163
centroamaya@zarbo.net

IPINGI

Santiago 88
ELIZONDO
T. 948 580 939
info@ipingi.es
www.ipingi.es

ARROPA eta OSAGARRIAK

OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK



Beola Etxea

VENTA

lbardin gaina, 30 BERA • T. 948 630 709 • www.beolaetxea.com



Udazken-neguko MODA BERRIA



LURRINDEGIAN sekulako eskaintzak!

Xti.

**ICHI
smash!**

SURKANA

CASUAL FRIDAY

**BLEND®
b.young®**

TIFFOSI

ILEAPAINDEGIAK

Emakumezkoak

Ile-adats naturalak daude modan, ile nahasi edo harroak diruditenak. Horrekin batera, diademak, ile-bildu altuak eta txirikordak ere moda modan daude. Ilea motz eramatea gustuko dutenentzat, **50. hamarkadako tupeak edo rock izarren orrazkerak** inspirazio iturri izan daitezke. Modako koloreak **marroi-gorriak** eta **hori-zurriak** dira.



Gizonezkoak




Ile motza da nagusi, motz-motza edo alboak moztu eta goiko alde luzeago utzita. **Marra albo batera** egitea ere modan dago.



ESTETIKA

Gure buruari egiten diogun oparia

Udazkena azalberritzeko sasoia da, udan egin-dako kalteak arintzekoa. Horretarako, hainbat tratamendu eskaintzen dituzte eskualdeko profesionalak; azal eta gorputz bakoitzak dituen beharrak kontuan hartuta. Gainera, zaintza hauek, erlaxazioaren sinonimo ere badira. Nork ez du maite bere buruari minutu batzuk eskaintzea?



Apain-apain jartzeko

Muturreko bi joera ageri dira makillajeari dagokionean. **Koloreen eztanda**, batetik eta **erabateko naturaltasuna**, bertetik. Lehendabiziko aukera, egokia da oso hitzordu berezietarako. Udazken-neguko modako koloreek ezpainak, azazkalak eta begiak apainduko dituzte: **gorriak, urdinak, berdeak eta laranja** batez ere. Azazkalak apaintzeko **testura desberdinekin** jokatu edo **diseinu asimetrikoak** osatzea dago modan.

**MAITATU,
ZAINDU,
GOXATU...
ZURE BURUA**

Informazioa eta erreserbak
bainuetxeko harreran



balneario
elgorriaga
hotela-bainuetxea

Gure tratamendu berriekin
erraza izanen duzu...

- PRESOTERAPIA
- IRRATI-FREKUENTZIA
- DIAMANTE BIDEZKO
DERMOABRASIOA

Errotaldea z/g 31744 **ELGORRIAGA** (Nafarroa) | Tel. **948 45 60 45**

GIZARTEA → IKASTURTE BERRIA

Hainbat ikastaro hasiko dituzte urrian

Elizondon,
Donezteben,
Oronoz-
Mugairin,
Elgorriagan,
Urdazubin,
Leitzan eta
Beran eskainiko
dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Ikastaroen batzordeak bilera egin zuen irailaren 15ean, urritik aitzinera egingen diren ikastaroak antolatzeko. Aurtengoan dantza, estiramendua, zura lantzea eta pirograbatua, aquagym, yoga, informatika, lorezaintza, frantsesa, mugikorraren erabilera eta memoria tailerra izanen dira ikastaroak eta Elizondon, Donezteben, Oronoz-Mugairin, Elgorriagan, Urdazubin, Leitzan eta Beran eskainiko dituzte.

Lezora bidaia

Irailaren 14an 118 bazkide joan ziren Lezora, Santo Kristoren bes-tetatarra. 11 etako meza entzun ondotik herri kirolak ikusteko asmoa zuten, baina euriarengatik bertan behera utzi zuten eta uste baino lehenago joan ziren Oiarzungo Gurutze Berri jaretxera bazkaltzera.

Erakusketa Leitzan

Irailaren 17an Leitzan egin zen Taloaren Egurenaren harira, Arkupeak elkarteko zenbait bazkidek beraien artelanak erakusteko aukera izan zuten: Jesus Zabaletaren zur-lanak, Julian Azpirozen danbolinak, Fermin Azpirozen belar-metak, eta Maritxu Goñi, Txaro Gordobil, Pili Ezkurdia, Arantxa Grazirena eta Sebastian Ezkurraren ehoziri-lanak, gurutze-puntua, handangez, gantxillo eta bainillak.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Bazkideen eskulanak Leitzako taloaren Egunean.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

49 mendizale Igantziko mendi irteeran

49 mendizale elkartu ziren Igantziko plazan eta Errota, Monua, Abelu, Apaola, Bulatxiki, Aranibar, San Juan Xar eta Txoperen Bordatik pasatu ondotik Igantzira bueltatu ziren. 5 orduko ibilbidea eta gero, Igantziko Biltoki elkartearen otordu ederra egin zuten, Corpusen alabak prestatua eta gero, kantuan eta dantzaz ibili ziren, Tomasek gidatuta.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Salamanca, Avila eta Segovia ezagutzuz

99 bazkide joan ziren Salamancara irailaren 18an, probintzia horretako eta Avila eta Segoviako leku interesgarriak ezagutzera. Lehen geldialdia Quintanillan egin zuten, Burgosetik hurbil, gosaltzeko. Hoteletan lekua hartu ondotik, arratsaldean Peñaranda de Bracamonte bisitatu zuten. Hilaren 19an, berriz, goiz eta arratsaldez Salamancako leku esanguratsuenak ezagutu zituzten: Plaza Monumental, Casa de las Conchas, bi katedralak, unibertsitatea, San Esteban komentua eta panpinen museoa. Biharamunean, Avilako katedrala eta harresia ikusi zituzten. Hilaren 21ean, Sierra de Francia ingurua ezagutu zuten, zuhaitzez eta berdeguez betea. Miranda de Castañar herriko bizilagun batek bertako historiaren berri eman zien, karrikak eta gaztelua ikusten zuten bitartean. La Alberca herri dotorea ere bisitatu zuten goiz batez eta produktu tipikoak erosteko ere aprobetxatu zuten. Arratsaldez, Peña de Francia igo ziren, 1.700 metrora, eta moje dominikotar batek santutegiko historia azaldu zien. 'Agur Jesusen ama' kantatuz agurtu zuten. Hilaren 22an Segoviako akueduktoa bisitatu zuten eta kalez kale katedrala eta Alcazar-eraino joan ziren. Arratsaldean, Erdi Aroko desfile bat ere ikusi zuten. Biharamun goizean, Segoviako kaleak eta Pedrazako espetze zaharra ikusteaz gain, Segoviako plater tipikoa dastatzeko modua izan zuten: zerrikumea. Arratsaldez, autobusa hartu eta etxera bueltan etorri ziren, Burgosen geldialdia eginez.

ARESO

TAILERRAK → AZAROAREN 2RA BITARTE IZANGO DA IZEN-EMATEKO AUKERA

Haur eta helduentzako joste ikastaroak antolatu dituzte

Udalak ez du eskolaz kanpoko zaintza zerbitzurik eskainiko

TTIPI-TTAPA

Carmen Rezola herritarren eskutik, josten ikasteko aukera izango da aurten ere. Haur eta helduei zuzendutako ikastaroa izango da eta taldeak adinaren arabera banatzea erabaki dute, talde bakoitzaren beharretara

hobekiago egokitu eta elkar ez oztopatzeko. Azaroaren 2ra arte, Sastinean dago izena emateko aukera. Klaseak seguruenik astelehenetan izango dira; haurrak lehenbizi eta segidan, helduak.

Pilates ikastaroa

Helduentzako pilates ikastaroa eskainiko dute astearte eta ostegun iluntzetan, 20:15etik 21:05era. Ikasturte osoa 135 euro kostako da eta nahi duenak bi epetan ordaintzeko aukera izango du. Bizkarreko

lesioak saihesteko, zoru pelbikoa zaintzeko, abdominalak kontrolpean egiteko... onuragarria den metodoa da pilatesa.

Zaintza zerbitzua

Eskolaz kanpoko zaintza zerbitzurik ez du eskainiko Udalak ikasturte honetan. Zerbitzua martxan jartzeko gutxieneko haur kopuru bat bildu beharra zegoen eta eskaera nahikorik egon ez denez, udalak zerbitzua bertan beharra uztea erabaki du. Hurrengo ikasturteetan es-

kariak gora egingo bazu, berriro eskaintzeko aukera legoke.

Hirigintza plana

Hirigintza plana osatzeko proiektua pixkanaka aurrera doa. Irailen planoaren erredakzio lanak egiteko deialdia ireki zuen udalak eta hiru enpresa izan dira proposamenak aurkeztu dituztenak. Urriaren 5ean irekitzekoak zituzten proposamen ekonomikoak biltzen dituzten gutunazalak eta urriaren 16an jakinaraziko dute nork egingo dituen lanak.



Pertsonaia

Antonio ALUSTIZA

18. txapela ere soinean darama

Irailaren 16an Atxondon, Bizkaian, jokatu zen Euskal Herriko Artzain Txakurren lehiaketa irabazi zuen Antonio Alustiza herritarrek Jai txakurren laguntzarekin. Heme-retzigarren txapela lortu zuen horrela Alustizak, Nafarroako hama-zazpigarrena eta errekor guztiak gainditu, orain arte txapela gehien lortu dituen artzaina baita.

LEITZALDEA

TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probetu aukerak!

Aritzela DEKORAZIO TAILERRA %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan Landa Industrialdea-Suizpi, 3 LEITZA T. 948 61 06 11	edr^{igunea} %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	ETXE TRESNAK S.L. %10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08	FISIOETXEA Ane Eggozal Ustia Fisioterapeuta %10 DESKONTUA hamar saioko bonoan Uhartetza Goizaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30	Garbi dregeria - lurrindegia %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Huartetza Goizaina, 19 LEITZA T. 948 51 01 73
gatzelu scl iturgintza %15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86	HERNANDORENA %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55	KAPRITXO %5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48	KU-LAN KJ %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Uhartetza Goizaina, 1-behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20	Letza Kafetegi Olindegia %5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74
LEITZAHIROLAK %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76	MAIMUR %10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	Olaia Bazar %10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Landa Behetxea LEITZA T. 948 51 04 37	ttiipi-ttapa %10 DESKONTUA esketetan Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58	Leizak %5 DESKONTUA gozoglegian 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20

GIZARTEA → UDALA, KONTSUMO TALDEA ETA HERRITARRAK ELKARLANEAN

Bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko plana osatuko dute

Urriaren 19tik azaroaren 2ra partaidetza prozesua egingen dute

TTIPI-TTAPA

Bertako produktuen kontsumoa eta ekoizpena bultzatzeko duela urtebete inguru sortu zuten Bertatik Bertara taldea udalak, LeitzEko kontsumo taldeak eta hainbat herritarrek.

Urte honetan taldeak egoeraren diagnostikoa egin du, bertako produktuen ekoizpen, salmenta eta kontsumoaren inguruko errealitatea jasoz. Ondorio orokorgisa aipatu dute: «gain-beheran, zahartzen eta bizirauteko zailtasunak dituen sektore bat aurkitu dugu». Horrekin batera, lehenengo sektoreari segida eman behar ko liekeen gazteen artean motibazio falta agerikoa dela eta zerbitzuaren sektorearen eta lehenengo sektorearen arteko elkarlana bultzatzeko premia dagoela ere ikusi dute.

Hurrengo urratsa, bertako produktuen kontsumoa eta ekoizpena bultzatzeko ekintza plana osatzea izanen da. Horretarako, *Leitza kontsumituz* partaidetza prozesua martxan jarriko dute eta herri osoarentzat onuragarria dela ikusita, herritar guztiei parte hartzeko deia luzatu diete.

Lehenengo bilera, urriaren 19an, osteguna, 19:00etan izanen da. Bertan diagnostikoa aur-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Talo, korrikalari eta irrintzien nahasketa borobila

Irailaren 17an pesta egun handia izan zen herrian, hitzordu ugarik bat eginda. Plazaolako maratoi erdia eta maratokia, talo eguna eta eskualdeko lehenengo irrintzi lehiaketa ospatu ziren egun berean. Goizean goizetik nabaritu zen mugimendua herrian, talo usainak erakarrita. Eskulangileen postuak ere ez ziren falta izan, ezta antzinako nekazaritzako tresnak ere. Eskualdeko talo lehiaketa ere egin zuten eta Constantino, Nekane eta Ziortza izan ziren irabazleak. Arratsaldean, berriz, irrintzien oihartzuna ozen zabaldu zen. Eskualdeko lehenbiziko irrintzi txapelketan haur, gazte eta helduak primeran aritu ziren. Haurretan Enara Arozena herritarra izan zen irabazlea eta helduetan Ana Gallo Bilbotarra.

keztu eta ondorengo bileretan landuko den planaren diseinurako oinarriak finkatuko dituzte.

HAINBAT HITZORDU

Gai hauekin lotuta, hainbat ekimen antolatu dituzte datozen asteetan: urriaren 5ean, Atekabeltzen, elikadura burujabetzari buruzko hitzaldia eskainiko du Mexikoko hizlari batek; azaroaren 6tik 12ra bitartean hainbat hitzaldi izanen dira; azaroaren 12an Leitzako eta Aresoko ekoizleen azoka antolatu dute eta azaroaren 24an, Euskal Herriko nekazal sindikalgin-tzari buruzko mahai inguru irekia.

09:00ETATIK AURRERA

Azaroaren 12an Leitzaran erreka garbitzeko auzolana deitu dute

TTIPI-TTAPA

Udalak eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketa Erakundeak, Irekibai, Europako Natura 2000 eta Life programaren babesarekin, erreka garbitzeko auzolana antolatu dute urriaren 12rako. Auzolana 09:00etan hasiko da eta Leitzaran erreka hainbat eremu garbituko dituzte: hondakinak erretiratu, plastikoak bildu... Goiz erdian hamai-ketakoa egin eta bildutako hondakinak plazan jarriko dituzte ikusgai.

Helburua ingurumen kontzientzia sortzea da, herritarrek errekek gure inguruan duten garrantzia jabetzea, hondakin kudeaketa arduratsuaz sentitibilizatzea eta ingurumena zain-



tzearen ardura kolektiboa bultzatzea.

Egin beharreko lanak hobeki antolatzeko aldeztu aurretik izena emateko eskatu dute leitza@leitza.eus helbidean edo 943510009 telefonora deituta. Tresneria eta gosaria Udalak eta GANek jarriko dituzte, herritarrei arropa egokia, botak eta lanerako gogoa eramatea bakarrik eskatzen zaie.

GIZARTEA

‘Gure buruak zaintzen’ tailerra antolatu dute bigarrenez

TTIPI-TTAPA

Pasa den urteko arrakasta ikusita bigarrenez antolatu du Leitzaldeko Berdintasun Batzordeak *Gure buruak zaintzen* tailerra. 60 urtetik gorako emakumeei dago zuzendua, dohainik izanen da eta Maite Blanco psikologo eta Gestalt terapeuta izanen da emalea. Asteazkenetan izanen dira saioak: urriaren 11n eta 25ean, azaroaren 15ean eta 29an, abenduaren 20an, urtarilaren 10ean eta 24an, otsailaren 7an eta 21ean eta martxoaren 7an. 17:00etatik 19:00etara Udaletxean. Izena emateko aukera urriaren 6ra arte dago Gizarzte Zerbitzuan (948 510840).

GOIZUETA



UTZITAKO ARGAZKIA

Kamioia, gasolindegiko depositoak betetzen.

GIZARTEA → BAZKIDE NAHIZ BAZKIDE EZ DIRENEK

Goizukoop kooperatibako erregaia har daiteke dagoeneko

82 bazkide ditu kooperatibak eta aurrerago eginen dute inaugurazio ofiziala

TTIPI-TTAPA

Hau irakurtzen duzunerako hasiak izanen dira Goizukoop kooperatibako 82 bazkideak eta bazkide ez direnak gasoila hartzen herriko gasolindegia berritik. Zehazki, irailaren 30ean hasi behar ziren. Iñigo Elizegi, kooperatibako presidenteak aipatu di-

gunez, «larunbatean eta igandean ordu jakin batzuetan gasolindegian egon ginen kooperatibako zuzendaritzakoak, bazkide bakoitzari bere txartela eman eta gasolindegia nola funtzionatzen duen erakusteko. Bazkide txartela, bazkideak erregaia prezio batean erosi ahal izateko da, baina bazkide ez denak ere bankuko txartel arrunt batekin hartu dezake erregaia».

Nahiz eta gasolindegia irekia egon, aurrerago eginen omen dute inaugurazio ekitaldixoren bat.



Ba al zenekien

Herria hobeki ezagutzeko *Katarrapikaka!* lehiaketa martxan jarri du Euskara Zerbitzuak. Hirunaka eman behar da izena urriaren 1etik 15era Amaia kafetegian eta lehiaketa azaroaren 18an eginen da Ganbaran. Sari ederrak izanen dira.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Giro bikaina Iskibi kanpineko hamargarren Euskal Jaian

Herriko festa egunen artean, gero eta indar haundiagoa hartzen ari den Iskibiko Euskal Jaia irailaren 17an ospatu zen. Hamargarren edizioa bete du aurten. Eguerdian hasi zen festa: herriko festetan egin zutenaren antzeko herri kirol saioa izan zen, Goizuetako gazteen arteko desafioa arpanan, aizkoran, lasterka eta zaku lasterketan. Ondoren, talo jatea egin zen herriko talogileen eskutik. Trikitixa eta pandero doinuak ere egun osoan hedatu zituzten, giro bikaina jarritz. Arratsaldean toka txapelketa jokatu zen eta Ixiar Bakero Eskudero eta Ekaitz Bazkaran Oinederra elgoibartarra suertatu ziren txapeldun.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Kataluniako erreferenduari babesa Goizuetatik Bilbora

Goiko argazkikoak tarteko, 35 goizuetar joan ziren Bilbora irailaren 16an Kataluniako independentzi prozesuari elkartzatuna adierazteko Gure Esku Dagok antolatutako manifestaziora. Behean, irailaren 20an, herrian egin zen elkarretaratzea, *Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat* izenburupean.

BESTAK → URRIAREN 11TIK 14RA

Gartzaingo Pilarika bestak ekitaldiz beteak datoz

Baztan
zopetako eta
zikiroko
txartelak Saioan
eta Frantsenen
egonen dia
salgai urriaren
8ra arte

TTIPI-TTAPA

Asteazkenarekin hasi eta larunbatean akituiko dira Gartzaingo Pilarika bestak.

ASTEAZKENA, URRIAK 11 BEZPERA

- 16:00etan txupinazoa eta ezkil jotzea, segidan herri-kalejira herriko musikariekin.
- 16:30ean mus zimista.
- 21:30ean Baztan Zopak trinketean.

- 00:00etan dantzaldia Pali Djrekin.
- 06:00etan zingar jatea.

ORTZEGUNA, URRIAK 12 PILARIKA EGUNA

- 10:30ean Dianak eta argi soinuak herriko musikariekin.
- 12:00etan meza Aiteko Pilarika ermitan, herriko txistulariekin eta ondotik luntxa.
- 19:00etan Los Tajudos del Norte mariatxien emanaldia.

ORTZIRALEA, URRIAK 13 HAUR ETA GAZTE EGUNA

- 12:00etan dianak eta argi soinuak herriko musikariekin.
- 14:00etan gazte bazkaria Frantsenen eta haurrena herriko plazan.
- 16:00etan haurrendako jokuak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herritarren eguneko desafioan eta zikiro jatean ederki pasatzeko aukera izanen da.

- 18:00etan Txokolate jana.
- 18:00etan gazteendako jokuak.
- 22:00etan herri afaria frontoian eta dantzaldia Mikel Salaberriekin.
- Ondotik gaupasa Zulo beltzen.
- 06:00etan kantzon-

tzilo eta kulero lasterketa.

LARUNBATA, URRIAK 14 HERRITARREN EGUNA

- 10:30ean dianak eta argi soinuak herriko musikariekin.
- 12:00etan herritarren arteko desafioa.
- 14:00etan zikiro jatea.

Ondotik boletoen zozketa eta sari bana-keta.

- Segidan dantzaldia Mikel Salaberriekin.
- 22:30ean afaria eta ondotik, gaupasa Mikel Salaberri musikariekin.
- 06:00etan Gaixoa ni eta besten akabaila.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babes

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

**CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua**



Santiago, 59 2C
ELIZONDO
T. 948 581 468
M. 630 354 818

BAZTAN

GIZARTEA → EZ DU KOSTU GEHIGARRIRIK ERAGINEN

Hiltegian egokitzapenak eginda puskatzeko zerbitzua abiatu da

Osasun Sailaren «exigentziei buruz» arrangura ere agertu du Balleko Etxeak

TTIPI-TTAPA

Aitzineko legealdian zatikatzeko gela egin ondotik, azkeneko urtean Udalak haragia puskatzeko zerbitzua abiatzeko legeak eskatutako lanak egin ditu: azienda hila sartzeko erraia moldatu eta motordun garabi ttipia paratu du, ur-zurruzak aldatu, ur zikinen bideraketa, barneko komunaren egokitzapena...

Bertzalde, altzariz hornitu du eta zatitutako haragi puskek etiketatzeko makina ere paratu du. Guzti horrek



UTZITAKO ARGAZKIA

30.000 euroko inbertsioa egin da hiltegia egokitzen.

30.000 euro inguruko inbertsioa ekarri du. Horiek eginda zatikatzeko gelak irekiera lizentzia eskuratu ahal izan du eta abuztuaz geroztik hiltegiko haragia puskatzeko zerbitzua abiatu da. Zerbitzu hau harakin eta partikularrei zuzendua dago eta hiltegia gestionatzen du-

en enpresak emanen du. Betiere Udalak Nafarroako Osasun Publikoaren departamentuaren exigentziei buruz arrangura agertu nahi du, Baztangoa bezalako hiltegi ttipi bati sekulako eskakizunak egiten dizkiotelako. Iduri du helburua hiltegi ttipiak hestea dela. Alta, uda-

lak garbi du hiltegiak zerbitzu publiko garrantzitsua ematen duela eta mendialdearen garapen sozioekonomikorako estrategikoa dela. Hor-taz, traba guztien gaitetik mendialderako beharrezkoak diren zerbitzu guztiak emanen dituen hiltegi bati buruz lanean segituko du.

KULTURA

Turismoarekin zerikusia duten kurtsoak Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Fundagro Fundazioak langile eta langabetuendako ikastaroak eskainiko ditu doan Arizkunenea Kultur Etxean.

Urriaren 16tik 20ra, *Produktu turistikoaren komertzializazioa eta salmenta* ikastaroa eskainiko dute. Parte-hartzaileek 09:30etik 13:30era edo 16:00 -etik 20:00etara ordutegia aukera dezakete eta izen-emate gehien dituen ordutegian eskainiko da 20 orduko ikastaroa.

Landetxeen kudeaketa 40 orduko ikastaroa urriaren 23tik azaroaren 7ra eskainiko da. Hemen ere ordutegia aukeratu daiteke.

Izen-ematea 666 615761 telefonoan edo *noeliasampedro@gmail.com* helbide elektronikoan.

LITERATURA BELTZA SUSTATZEKO BALLEKO ETXEAK EGINDAKO DEIALDIA

Miel A. Elustondo azpeitiarrak eskuratu du lehen (H)ilbeltza beka

TTIPI-TTAPA

Balleko Etxean emandako prentsaurrekoan Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko I. (H)ilbeltza bekaren irabazlea Miel A. Elustondo azpeitiarra izan dela iragarri dute irailaren 21ean. Joseba Otondo alkate eta epaimahaikideak eskualdeak literatura beltzarekin duen harremana nabarmendu du Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgainen* edota Mariano Izetaren lanak gogora ekarritik. Ama- goia Iban kazetari eta epaimahaikideak epaimahaiaren erabakiaren berri eman du. Ibanek oroitarazi du Elustondok lge- la argitaletxeak argitaratu dituen Jim

Thompson idazlearen hiru eleberri beltz itzuli dituela eta bekara aurkeztutako proiektuan «hilik dagoen narratzaile or- jakile batek kontakizunaren zama eraman- go duela» nabarmendu du.

Mikel Soto Txalapartako editore eta epaimahaikideak bekaren lehen deialdi honen balorazio positiboa egin du, izan ere, «hamabost lan aurkeztu dira Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko I. (H)il- beltza bekara eta, horregatik sikiera, egi- ten dugun balorazioa oso positiboa da. Hamabost lagunek erakutsi dute badu- tela literatura beltzarekiko zaletasuna eta proiektu banatan moldatu dute».



UTZITAKO ARGAZKIA

Miel A. Elustondok eskuratu du (H)ilbeltza beka.

Azkenik, (H)ilbeltza elkartearen izene- an, Aitziber Zapiainek eman dio irabazlearen ohorezko irudia eta gogorarazi du hu- rrengo urtean Euskal Herrian literatura bel- tza sustatzeko II. (H)ilbeltza bekak itzul- pena sarituko duela eta 2018ko (H)ilbel- tza astea urtarrilaren 15etik 21era bitar- tean izanen dela.

GIZARTEA → ABENDUAN ARRAIOZKO ESKOLAKO LEIHOAK ALDATUKO DITUZTE

Eskoletako udako lanak egin ditu Balleko Etxeak

100 metro koadroko lehor berria egin dute Arizkungo eskolan eta Amaiurren, Azpilketan, Erratzun eta Zigan ere lanak egin dituzte

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala Balleko Etxeak eskoletako inbertsioak eta mantenimendu lan desberdinak egin ditu udako hila-beteetan. Lanik aipagarria Arizkungo eskolan egin den lehor berria da, 100 metro koadrokoa. Proiektuak 30.000 euroko kostua izan du idazketa, zuzendaritza eta exekuzioa barnean hartuta. Lanak uztaila eta abuztuan egin dira eta Putxiriak egin ditu, eskaintza hobereena berea izan baitzen.

Modu berean Udalak Amaiurko eskolako



UTZITAKO ARGAZKIA

Arizkungo eskolako lehor berria.

gela baten hezetasunak eta zartadurak konpondu ditu pareta metro batenko altuera artio berri-tuz. Azpilketako eskolako lehendabiziko solairuan jangela egin du, horretarako gela bat osorik moldatuz; zola eta sabaia berri-tu eta ateak aldatu. Erratzun, bertzalde, liburutegia egiteko eskolako sabaia egokitu du eta Zigan kanpoko jolas-tokiaren zola berri-tu eta

eskolaren leihoetan burdinezko hesiak paratu ditu. Aipatu lanak egiteko udalak 15.000 euro inguruko inbertsioa egin du. Lan horietaz gain urteroko ohiko mantenimendu lanak ere egin ditu. Bertzalde abuztuko osoko bilkuran Arraiozko eskolako leihoak aldatzeko 18.000 euroko aurrekontu aldaketa onartu zen eta lan hau abenduan egingen da.

Helduendako antzerki dantza emanaldia

Bubamara Dance Theater taldeak *Amico* ikuskizuna eskainiko du urriaren 8an, igande arratsaldeko 7etan Irurritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Kultura Batzordeak 2017ko Arte eta Kultura egitarauaren baitan antolatutako emanaldirako sarrera doan izanen da.

FLASH

Argazki erakusketak Arizkunenean

Urriaren 2tik 13ra, Ramon Serranoren *Etor-kizuna gaur hasiko da* erakusketa antolatu du Vicente Ferrer Fundazioak. Urriaren 16tik 31ra, Antonio Ruizen *Bigarren mailako erre-fusiatuak* erakusketa antolatu dute Ezkerra-berri Fundazioak, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Kultura Batzordeak, 2017ko Arte eta Kultura egitarauaren baitan.

Euskal baleen triskantza

1615ean Islandian gertatutakoaren inguruko dokumentala eskainiko dute urriaren 6an, 20:00etan Arizkunenean. Ondotik, Beñat Iturrioz eta Eñaut Tolosa zuzendariekin solasaldia izanen da.

Liburu aurkezpena eta musika

Lola Sarrateak *Lolita* liburua aurkeztuko du urriaren 15ean, igandean 18:00etan Irurritako Jauregiarten, Dorrea elkarteak antolatuta. Ondotik, kontzertua eskainiko dute Raffaella Acellak (biolina) eta Ian Swedlund-ek (biolontxelo).

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Ohariz Auzoa z/g - LEKARÓZ
T.948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
ESTRUTURA EN PIEDRA



BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA

Mármoles
SOULE
HILETA ARTEA



T. 948 453 444
M. 688 605 182
ARIZKUN

BAZTAN

ABELZAINZA → IRAILAREN 23AN ETA 24AN

Behi azienda pirenaikoaren 30. Lehiaketa- enkantea egin dute Elizondon

26 ekoizleren
210 azienda
aurkeztu dituzte
lehiaketara

TTIPI-TTAPA

Pirinioko behi azien-
den nazio mailako le-
hiaketa-enkanteak 30.
edizioa bete zuen iraila-
ren 23an eta 24an Eli-
zondon, Udalak eta As-
pina erakundeak, ber-
tze hainbat babesleren
laguntzarekin antolatuta.
26 ganadutegietako
210 azienda aurkeztu
dira lehiaketara, 15 Na-
farroakoak, 6 Bizkaiko-
ak eta 5 Gipuzkoakoak,
eta bertze 30 saltzeko
jarri zituzten. Jendetza
ibili da Elizondon, aste-
buruko eguraldi bikai-
na baliatuta.

HAMABI KATEGORIA ETA SARI BEREZIAK

Baserritar bakoitzak
kategoria bakoitzera bi
buru aurkeztu ahal zi-
tuen eta lehiaketan par-
te hartzeko aziendak ha-
mabi kategoritan sailka-
tu ziren. Baztango ze-
zenkorik onena Erratzu-
ko Juan Jose Iñarreak
aurkeztutakoa izan zen
eta behirik onena, Arra-
iozko Isabel Lournaga-
rena. Denara, 70 bat sa-
ri banatu ziren. Hauek
izan ziren sari nagusiak:

Zezenkoetan, 24 hi-

labete artekoak: Angel
Mitxelena (Irurita). 2 eta
4 urte artekoak: Jon
Koldo Bikandi Bildoso-
la (Iurreta). 4 urtetik goi-
tikoak: Juan Jose Iña-
rrea (Erratzu)

Urruxei dagokienez,
8-12 hilabetekoak: Peio
Franziskonea (Luzaide).
12-18 hilabete: Pruden-
cio Urkia (Gipuzkoa). 18-
24 hilabete: Asier Bil-
bao (Durango). 2-3 ur-
te: Leire Amondarain
(Orozko). 3-4 urtekoak
umatuak: Jon Koldo Bi-
kandi (Iurreta). 4-6 ur-
tekoak umatuak: Gre-
gorio Iraola (Arraitz-Or-
kin). 6-8 urtekoak
umatuak: Jon Koldo Bi-
kandi (Iurreta). 8-12 ur-
te artekoak: Joseba Re-
kalde (Zeanuri). 12 ur-
tetik goitikoak: Maria-
nela Vittorini (Zenotz)

SARI BEREZIAK

Azienda bururik one-
na: Isabel Ibarrola Za-
balza (Azoz)

Ernalkuntza artifi-
zialeko arrik onena: Juan
Luis Irazola (Mallabia)

Ernalkuntza artifi-
zialeko emerik onena:
Carlos eta Laura Oroz
(Villanueva de Arce)

Indize genetiko one-
nak dituen arra: Jose-
ba Rekalde (Zeanuri)

Indize genetiko one-
nak dituen emea: Isa-
bel Ibarrola (Azoz).

Baztango arrik one-

na: Juan Jose Iñarrea
(Erratzu)

Baztango emerik
onena: Isabel Lournaga
Agerrebere (Arraioz)

Ernalkuntza artifi-
ziaren erabilera onena:
Iñiguez anaiak (Zudaire)

Ustategiaren ugai-
kortasuna: SAT Sarvil
(Salinas de Oro)

Nafarroako Aretxea-
INVAC Saria: Fernando
Izkue (Lezaun) eta Gon-
zalo Palacios (Izal)



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Azienda lehiaketa saridunak ageri dira goiko argazkian eta
nexuskatikoa behiei begira behehitikoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aritzakungo bidean zabalgunek egin ditu Balleko Etxeak

Aritzakun aldeko biztanleek eskaturik, Udalak Antsestegitik Mugako lepoko al-
deko bidean zortzi zabalgunek egin ditu. Aritzakun eta Urritzate aldean hama-
bortz lagun inguru bizi dira eta bide horrek Lizartzuko bazkaleku komunalerat
ematen du, baita han diren bi bentetarat ere. Mendiko bide estua izanik bi au-
to gurutzatzea ezinezkoa da. Zabalgunek hauek segurtasun gehiago ekarriko
dute. Lanak 2.400 euroko inbertsioa suposatzen du eta Altzugaraik egin du. Ber-
tzalde Aritzakun aldean ere mendiko lanen barnean udalak Intzulegi inguruan
4 kilometro alanbre zahar bildu du.

UTZITAKO ARGAZKIA



Bertako zuhaitz espezieak eta barietateak ezagutzeko ibilaldia egin zuten Anizen irailaren 16an

Baztango Agroekologia eskola herritarraren baitan bertze ikastaro edo hobeki erran, kasu honetan ibilaldia bat izan zuten. Irailaren 16an Anizko elkarteak eta Hazitik Hoziek Bertako zuhaitz espezie eta barietateak ezagutzeko ibilaldia antolatu zuten, Xabier Zabaletaren eskutik. Goizeko 9:30ean elkarturik abiatu zen taldea Anizko parajeetan barna. Sa-rerra gisa Xabierrek klimak inguruan duen eragina azaldu zuen; baita paisaiaren aldaketa historian zehar, neolitikotik gaur egunera artio batik bat. Azkenik, klima aldaketan, erreketako biotipoetan eta higaduran basoek duten garrantzia nabarmendu zuen. Inertze inguruan zuhaitz bakoitzaren ezaugarriak azaldu zituen, eritasunak... Agroekologia eskola herritarreko ondoko hitzordua, Jo ala Jo elkarteak urrian antolatuko duen sagar dastaketa ikastaroa izanen da.

ZUGARRAMURDI

KULTURA → IRAILAREN 23AN INAUGURATU ZUTEN

Betimuga Factoryren lanak ikusgai Sorginen Museoan

Ilbelta bitarte egonen dira ikusgai 'Ready made' estiloan egindako lanak

TTIPI-TTAPA

Jose Luis Urtxulategi doneztebarra, Ramon Aranzabal zarauztarra eta Juan Luis Alkorta zugarramurdiarra "Ready made" izeneko estiloan dabiltza murgildurik, Betimuga Factory taldearen baitan. Eskulturak, kuadroak... egiten dituzte eta larunbatean, irailaren 23an, Zugarramurdiko sorginen museoko goiko solairu-

an inauguratu zuten erakusketa.

Alde batetik, aurkitutako gauzekin lan egiten dute. Hauek industrian edo egunerakotasunean erabiliak izaten ahal dira, egokituak ala ez, baina bere testu ingurutik aterata, bere funtzioa ere aldatuko dute. Gainera, egurrezko despunte eta ebakinekin egindako eraikinak eta konposaketak badira erakusketan.

Jende aunitz bildu zen larunbatean eta erakusketari hasiera eman zitzaion. Erakusketa urtarila bitarte egonen da ikusgai museoaren ordutegi berean eta sarrrera doakoa da.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Juan Luis Alkorta, Ramon Aranzabal eta Jose Luis Urtxulategi: Betimuga Factory.



UTZITAKO ARGAZKIA

Onddo ederrak Atxuria mendi taldearen ibilaldia profitatuz

Irailaren 24an, Atxuria mendi taldeak egindako ibilaldian, ongi profitatu zuten izandako onddo-kolpea. Bidean zehar onddo batzuk topatu zituzten, eta hoietako bat sekulakoa. Garikoitzek ibilaldia egiten zuen lehenbiziko aldia zuen, eta hara ze sari ederra hartu zuen!

URDAZUBI

GIZARTEA

GIZARTEA → HAINBAT IKASTARO HASIKO DITUZTE URRIAN EMAKUME NAHIZ GIZASEMEEI IREKIAK

Ugarana emakume elkartearen ikasturteko ekimenak abian

Streaching, pilates eta zunba ikastaroez gain, informatika eta lorezaintzarena eman nahi lituzkete

Iñigo IMAZ

Urtero bezala, aurten ere urrian hasiko dira Ugarana Emakume Elkartearen ekimenak eta ikastaroak. Anaxtaxi Bidart bazkidearen erranetara, Leorlaseko eskola publikoaren eraikinean burutuko dira ekimenok. Xaretako emakumeendako antolatutako diren arren, gizonetako ere ongi etorriak direla argitu du Bidartek. Izan ere, azken urteotan geroz eta gizonetako gehiagok ematen dute izena ikastaro ezberdinetan.

Astelehenarekin, lon Medranoren *Streaching* ikastaroak hiru ordutegi izanen ditu. Kurtso



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ugarana taldeko emakumeak, sagardotegiko azken ateraldian. Orai, ikasteko aukera dute.

bakoitzak ordubete irauten du, eta aurreko urteetan parte hartu dutenak arratsaldeko 5:30 eta 7:30ean apuntatzen ahal dira. Hasiberrientzako 6.30etan paratu da klasea. Nova irakasleak, berriz, asteartero *Pilates* emanen du, ordu eta erdikoak izanen dira, eta hurrenez hurren 18:30 eta 20:30ean izanen dira.

Akitzeko, asteazketan, lone Bengotxe-

ak *zunba* ikastaroa antolatu du guraso elkarteko kideek eskaturik. Haur eta gazteendako *zunba* arratsaldeko 6:30 eta 7:15 bitartean izanen da, eta dagoeneko 20 ikaslek eman dute izena. Helduentzako, berriz, eta Ugaranak antolaturik, arratsaldeko 7:30 eta 8:30 bitartean. Ikastaro bakoitzak bere tarifa propioa dauka, baina denetan derrigorrezkoa da Ugarana el-

karteko bazkide kuota ordaintzea. Beti bezala, 15 euroko kuota elkarteari ordaindu behar zaio ohiko lekuetan edota telefono hauetara deituz: 948 599 027 eta 690 123 493.

Buruartean dituzten proiektu berrien berri ere eman du elkarteak: informatika eta lorezaintza, baina gutxienez 10 pertsonak eman behar dute izena ikastarook eskaini ahal izateko.

ERREPIDEAK

Sunbillako tunelean bidea txandaka ematen ari dira

TTIPI-TTAPA

Irailaren 18tik hasita eta hiru hilabetez, trafikoan eragina duten lanak egiten ari dira Sunbillako tunelean, N-121-An. Europako araudira egokitzeko lanak egiten dituzte denbora honetan eta semaforoen bitartez, txandaka bidea ematen dute Irun alderako bidetik.

Herrilan Zuzendaritza Nagusitik, ibilbide luzeak egiten dituzten ibilgailuei A-15 autobidea edo N-1 errepidea hartzeko aholkua eman diete.

Lan hauekin, likido toxikoen eta sukoiaren drenatzea eta suteak itzaltzeko sistema egokitu nahi dituzte, baita etengabeko argindar hornidura sistema egokitu ere. Lehen hilabeteetan Irun alderako norabideko karrila libratuko dute eta azken astean, abendu erdialdera, trafikoa Iruña alderako bidetik joanen da.

**GURE
HURRENGO
GEHIGARRIETAN
PUBLIZITATEA
SARTU NAHI?**



**Informatu
zaitez
948 63 54 58**

**ERAIKUNTZA
Azaroak 16**

**KIROLAK
Azaroak 30**

KULTURA → IRAILAREN 16AN LARRALDEAN

Lorea Oar-Arteta margolariaren erakusketaren estreina ederra egin dute


Artista bermeotarraren lanen ikusterat ainitz jende hurbildu da

Pierre BASTRES

Larraldeko lehen soilaruko bi saletan ikusten ahal ziren Lorearen sorkuntzak, eta biak jende beteak ziren. Pozik ziren iragaileak, eta Lorea ere izigarri kontent agertu da. Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretan lizentziatua da, 1999an behin behineko erresidentzia erdietsi zuen Bilboko Arten

eta orduz geroztik bere hango Estudio batean aritzen da lanean. Berak idazten duen bezala: «Ikus entzunezko munduan murgildu nintzen bideo esperimentera eta honek soinuen mundura eroan ninduen eta handik aurrera marra, bolumena eta kolorearekin batera bideo eta soinuen hizkuntzak ere lantzen ditut».

Bizkaiko hiri nagusiaren bizi izanagatik ere, Senpereko Larraldean erakusketa egiteko parada bazuela jakindakoan, berehala baietza eman du: «Enelanak he-



ARGAZKIAK: PIERRE BASTRES

Lorea Oar-Arteta margolaria (ezkerrean), lagun batekin. Ondoan, bere lanetako batzuk.

men erakusteko mentura Andonik etxe nagusiak eman dit, eta hori jakinda loriatu naiz». Bilbon ez bezala, Senpereko behatzaile gehienak herri txikiko eta laborantza mundukoak izanki, Lorea ohartzen da: «Laborariek beraien ondo lan plastiko ederra egin izan dute

Miguel Angel jaio baino lehen eta oraindik ere egiten dute etengabean ama natura lagun. Lur sail bati piper landareen berdea ematen dio laborariak gero denborak xuabe xuabe gorritu egingo du; ondoko lur sailean beste zerbait landatu, bestelako forma emanda naturari

kasu eginez, eta han beste kolore aldakorra sortuko da. Bata bestearen ondoan jarrita kaleidoskopio bizia sortzeari ekingo dio laborariak eguneroko lanean natura lagun duela. Bada Benjamin Palencia izeneko pintore bat laborariaren lan plastikoa imitatzen duena».

KULTURA → LANAK IGORRI BEHARKO DIRA AZAROAREN 1A BAINO LEHEN

Larraldea Bertsopaper lehiaketa antolatu dute Lapurdi1609 eta Bertsularien Lagunak

Helduen mailan 300 eurokoa izanen da lehen saria

Pierre BASTRES

2017ko otsailean Lapurdi 1609 eta Bertsularien Lagunak elkarteek Senpereko bertsolari eta ditzolariei omenaldi xume bat eskaini die-

te, bat-bateko bertso eta ditzoeekin batera idatzizkoak ere liburu batean bilduz.

Izan ere bertsolari eta bertso idazle andana izan ditu Senperetik, eta badira gaur egun beren xokoan ohitura hori segida ematen diotenak. Larraldea bertso-paper lehiaketa berri honek Senperetik eta Euskal Herri guziko bertso

idazleei beren lanak argitaratu emateko parada eskaini nahi die.

Animazait, buru xokoan edo apaletan dituzun bertso horiek igortzera, anima itzazu zure ingurukoak ere parte har dezaten, denon artean bertso idatzien arnas berri bat eman diezaiegun!

Adinaren arabera, bi maila banatuko dituzte.

Gazteen mailan, 17 urte artekoak (gutxienez 4 bertso eta gehienez 8) eta helduen mailan, 18 urte edo gehiagokoak (gutxienez 6 bertso eta gehienez 10). Lanak azaroaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira e-postaz (lapurdi1609@laposte.net) edo helbide honetan: *Lapurdi 1609 elkarte/Larraldea Bertsopaper*

lehiaketa/ Larraldea, Amotze auzoa, 64310 Senpere).

Helduetan, 300, 200 eta 100 euroko sariak izanen dira hiru lehenbizikoentzat eta gazteen mailan, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarrera bat eta Xilabako materiala. Sari banaketa abenduaren 3an, 10:00etan egingo dute.

SARA

GIZARTEA → LARHUN ERABERRITZEKO PROIEKTUA

Agerian gelditu da Larhongo proiektuak sortu duen kezka

Ehun lagunetik goiti bildu ditu Larrun Ez Hunkiren bilkurak

Joana GERENDIAIN

Joan den irailaren 19an, Larrun Ez Hunki kolektiboak bilkura publiko bat antolatu zuen Lur Berri gelan eta antolatzailerik espero ez zuten erantzuna izan zuen, 160 lagunetik goiti bildu baitziren. Elkartea hau *La Rhune 2020* proiektuaren aurkezpenaren ondotik sortua da, azken honek aldaketa gaitzak aurreikusten baititu, Larhunen itxura erabat aldatuko lukeena.

Elkarteko kideen araberak, eraikuntzen eta azpiegituren berrikuntza eta berrantolaketa beharrezkoak dira, bereziki elbarrituentzat. Baina ez dute onartzen treinen emendaketa eta eraikuntza berriak egitea kaskoan. Kolektiboaren hitzartzea eta gero, publikoak hartu zuen hitza,

eta kezkak eta proiektuaren ilegaltasuna adieraziak izan ziren.

Larrun Ez Hunkik mobilizazioekin segitzeko asmoa du. Horien artean, mendi martxa bat egin nahi du.

Errebestak

Herriko bestak finitu eta hilabete eskasera, errebestak edo bestatiki

kiak izanen dira urriaren 7an, larunbatarekin. Egun osoko egitaraua prestatu du Besten Elkartek.

Pilota partidekin hasiko dute eguna: 10:00etan Joko berri partida jokatuko dute: Xan Saint Esteben, Sebastien Etxeberri eta Oihan Bortetrou, Eneko Arribiliaga, Eneko De Paredes eta Peyo Galharragueren

kontra ariko dira. 11:00etan esku huska ariko dira: Denis Endara eta Jon Laduche, Daniel Calvet eta Christophe Mariluzen ariko dira.

12:00etan aperitifak eskainiko dute eta 14:00etan herri bazkaria hasiko da, Binuza Fresko txarangak alaituta. 21:00etik aitzinera, berriz, Jotatxo DJa ariko da.



ARGAZKIA: JOANA GERENDIAIN

Eguzki alde, Sarako baratze mandala

Neska gazte batek baratze mandala bat eraiki du apezetxe ondoko baratzean. Baratze honek erronda forma du eta iparralde, ekialde, hegoalde eta mendebalderantz itzuliak diren lau arkutatik sartzen ahal da. Baratze hau eraikitzeke materia ezberdinak erabili ditu: hosto hilak, belarra, landare xehatuak. Sortzailearen helburua saratarren kuriositatea piztea da, eta eskolekin bisitak antolatzeko prest egonen litzateke.

FLASH

Mintzaldia

Urriaren 6an, ortzirale gauetz, Olhain ikastolako antolaturik, Koldo Zua-zo unibertsitateko irakasle eta ikerlariak mintzaldia emanen du Lur Berri gelan, 20:30ean. Mintzaldiaren gaia *Ikastola eta mintzairada*, eta ikerlariarentzat Sarako euskarari buruzko erasmaten ari den lana aurkezteko aukera ere izanen da.

Garagardo besta

Urriaren 14an Herriko Etxeko Edantegian garagardoaren besta eginen dute. Egun horretan eguerditik goiti herrialde ezberdinetako gargardo batzuk jastagai izanen dira: xuria, horia, beltza; denetzat izanen da. Iluntzean, 19:00 aldean, Itsasuko Klika txarangak giroa emanen du eta ondotik Ekintza taldeak gaualdia bukatuko du.

Kirol emaitzak

Sasoina nahiko ongi hasi dute herriko eskubaloitaldeek. Irailaren 16an senior neskek 15-15 egin zuten eta mutikoei galduta, 21-15. Irailaren 24an, ekipa guziek irabazi zuten: 18 urtez azpikoei 23-19, senior neskek 30-6 eta mutikoei 22-13.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinearik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

Martiko
 Pol Zalaín, s/n.
 31780 Bera, Nafarroa
 Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
 www.martiko.com

Ahatekietan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
 astelehenetik
 ortziralerara
 08:00etatik
 17:00etara

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
 Zugarramurdiko errep. 3 km
 URDAZUBI

744 484 361
ttipi-ttapa

EZKONTZAK

Jesus Mari Bazterrika Migeltorena eta **Ainhua Antxordoki Bereau**, Sunbillakoa eta Igantzikoa, Igantzin irailaren 16an.

Josu Lizarazu Aranburu eta **Estibaliz Almandoz Maia**, Zizurkilgoa eta Lesakakoa, irailaren 9an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Alen Zubilaga Urreta, Aresokoa, irailaren 25ean.

Joxe Mari Mindegia Legazkue, Zubietakoa, irailaren 10ean.

Nahia Apeztegia Aldabe, Doneztebekoa, irailaren 19an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Maritxu Aiertza Gogortza, Leitzakoa, irailaren 18an, 89 urte.

Juanita Iraola Bertiz, Berakoa, irailaren 20an, 89 urte.

Antonio Olabarri Lopez, Lesakakoa, irailaren 23an, 78 urte.

JUAN MARI ZALDAIN MAISTERRENA

Amaiurren hil zen, 2016ko urriaren 1ean
1. URTEURRENA

Urte bat pasatu zaigu jada,
hemendik joan zinenetik.
Hutsune handia utzi zenuen
zutez oroitzen gara beti.

Hain positibo ta hain alaia,
Hain indartsu ta maitagarri,
Zure omenez segitzen dugu
Beti aurrera ta beti aintzin.

Muxu handi, handi, bat Amaiurtik zerure
senar eta aitatxo maitia.

EMAZTEA ETA SEME-ALABAK

Maritxu ALZUGARAI ZABALETA

Donostian hil zen, 2017ko irailaren 21ean,
73 urte zituela.

*Agur amatxi,
beti gure bihotzetan.*

Senarra: Elias Pierola, alaba: Estitxu eta
Joxemari Ballarena eta biloba: Amets.

Juan Mari MAKAZAGA AIZPURU

2017ko abuztuaren 20an hil zen Goizuetan

*"Hire oroimena piztuko zaiguk
ehiztariei bihotzetan
Mandoegitik uso banda bat
pasatzen den bakoitzetan"*

BASAUNTZ ELKARTEA

HERRI KIROLAK → EUSKAL HERRIKO KOXKOR BILTZE TXAPELKETA JOKATU ZEN IRAILAREN 17AN LARRABETZUN (BIZKAIA)

Fernando Etxegarai txapeldun eta Maika Ariztegi txapeldunorde izan dira

Hamekagarren aldiz lortu du Euskal Herrikoa Berako kirolariak

TTIPI-TTAPA | SARA

Irailaren 17an jokatu zuten Larrabetzun (Bizkaia) Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa. Fernando Etxegarai beratarrak gizonezkoetan bere hamekagarren txapela jantzi zuen eta, iaz bezala, Maika Ariztegi iturendarra txapeldunorde izan zen, Zuriñe Frutos arabarraren gibeletik.

Azken bi urteetan bezala, Nafarroako txapelketan txapeldunorde izan ondotik lortu du Euskal Herriko txapela



ARGAZKIA: IDOIA ANDRES

Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan parte hartu zuten gizasemeak. Fernando Etxegarai txapeldunaren ondoan, hirugarren izan zen Iñigo Lasaga etxalartarra.

Fernando Etxegaraik; hamekagarrena. Sei minutu eta 26 segundo be-

har izan zituen 1,25 metroko tartean jarritako 50 koxkorak biltzeko.

22 segundoko alde atera zion bigarren izan zen Aritz Martin bizkai-

tarrari (6:48) eta 25ekoa podiuma osatu zuen Iñigo Lasaga etxalartarri (6:51). Zazpi minutu baino gehiago behar izan zituzten Aritz Ruiz arabarrak (7:05), Ignacio Gomez bizkaitarrak (7:07) Guillermo Lopez arabarrak (7:33.).

Emakumezkoetan, iaz bezala, Zuriñe Frutos arabarra nagusitu zen (7:31). Maika Ariztegi iturendarrak bortz segundo gehiago behar izan zituen eta txapeldunorde izan zen (7:36). Zortzi minutu baino guttiago behar izan zituen emakume bakarrak izan ziren. Irantzu Onaindia bizkaitarra izan zen hirugarren (8:02), Garazi Arruti bizkaitarra laugarren (8:11) eta June Etxeberria nafarra bosgarren (8:13).

AIZKORA → NAFARROAKO 1. MAILAKO TXAPELKETAKO KANPORAKETA

Iker Vicente da aurten ere favorito nagusia

Azaroaren 17an Donezteben jokatu den finalean Rekondo, Mindegia, Saralegi eta Etxeberria ere ariko dira


TTIPI-TTAPA

Nafarroako lehen mailako aizkora txapel-

ketaren kanporaketa jokatu zuten irailaren 24an Uharteko Toki-Alai pilotalekuan. Azaroaren 17an, Doneztebeko ferietan jokatu den finalerako bortz txartel izan zituzten jokoan eta gaur egungo txapelduna, Iker Vicente izan zen jaun eta jabe. Otsagikoarekin batera, Jon Rekondo leitzarrak, Mieltxo Saralegi zubietarrak, Ruben Saralegi leitzarra eta Joxean Etxeberria zigatarrak lortu zu-

ten finalerako sailkatzea.

Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bana moztu behar zituen eta lan horretarako alde handia lortu zuen Iker Vicentek. 13 minutu eta 31 segundo behar izan zituen lana burutzeko. Jon Rekondok ia 2 minutu gehiago behar izan zituen (15:30), Mieltxo Mindegia 15 minutu eta 40 segundo, Ruben Saralegi 16 minutu eta segundo bakarra eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskal Herriko nahiz Nafarroako txapelketetako kanporaketetan lehen postua lortu du Iker Vicentek.

Joxean Etxeberriak 16 minutu eta 30 segundo.

Finaletik kanpo gelditu ziren Donato Larretxea (17:07), Julen Kañamarek (17:38) eta Juan Jose Lopez

(18:13). Ander Erasun aurtiztarrak eta Olagueko Aitor Senosiainek txapelketan ez aritzea erabaki dute. Hori dela eta, bi hauek maila galduko dute.

LAXOA → IRAILAREN 17AN DONEZTEBEN

Oizek irabazi ditu gaztetxo eta gazte mailako txapelak

Doneztebe B
eta Arraioz-i
irabazi zieten

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Laxoa Elkarteak antolatutako gazte eta gaztetxoaren laxoa txapelketako finalak jokatu zituzten irailaren 17an, igandean, Doneztebe-ko Bear Zana pilotapla-
zan. Gaztetxoetan Oiz eta Doneztebe B eta

gazteetan Arraioz eta Oiz izan dira finalistak eta bietan oiztarrak nagusitu ziren.

Gaztetxo mailako finala igande arratsaldeko 4etan hasi zen. Oizekin Xuban Illarregi, Mikel Mikelarena, Markel Leatxe eta Aimar Ariztegi aritu ziren eta Doneztebe B taldearekin David Mitxeko, Eneko Maylin, Ander Ruiz eta Erik Garcia. Oizek 9-5 irabazi zion Doneztebe



UTZITAKO ARGAZKIA

Txapeldunak eta txapeldun ordeak, antolatzaile eta sari emaleekin batera.

Bri, baina, lehen jokoe-tan batez ere, berdintasun handia izan zen eta 4-5era bitarte doneztebarrak aitzinetik ere ibili ziren, baina azken bortz jokoak Oizek egin zituen segidan. (0-1, 1-1, 1-3, 3-3, 3-4, 4-4, 4-5, 9-5).

**GAZTE MAILAN
OIZTARRAK ERRAZAGO**
Gazte mailako finala jo-

katu zuten segidan. Arraiozekin Eki Etxandi, Josu Etxandi, Urki Etxandi eta Mikel Organbide aritu ziren. Oiz taldean, Ioritz Zelaieta, Aimar Saldias, Zorion Zelaieta eta Jon Oiarzabal aritu ziren. Kasu hone-tan, beti aitzinetik ibili ziren oiztarrak eta nagusitasunez lortu zuten txapela (2-0, 2-1, 3-1, 3-2, 8-2, 8-3, 9-3).

Jende anitz izan zen plazan eta giro ezin hobe-a. Txapelak eta trofeoak banatzen Nerea Telletxea Doneztebeko udal zinegotzia eta Rufino Polido, Nafarroako Pilota Federazioko ki-dea izan ziren.

Txapelketari bukaera emateko, pilotari, gu-raso eta zaleak merendu-afari batean elkartu ziren.

PILOTA → URRIAREN 1EAN DONIBANE LOHIZUNEN

Domingo Etxandi erratzuarra omendu du Pilotarien Batzarrak

Munduko pilota
txapelketetan
dominak lortu
zituen trinketea

TTIPI-TTAPA | ERRATZU

Pilotarien Batzarrak Domingo Etxandi pilotari erratzuarra omendu du Donibane Lohizunen urriaren 1ean.

Domingo Etxandi Inda Erratzuko Gamioan jaio zen 1950eko irailaren 12an eta eskuz aritu zen. 17 eta 18 urte-

rekin Espainiako txapeldun izan zen jubenil mailan; bi finaletan Oreja III. izan zuen bikote.

Uruguay-en 1974. urtean jokaturako VII. Munduko Pilota Txapelketan brontzezko domina lortu zuen eskuz baina trinketea. Finalerdia Panpi Ladutxeren kontra galdu zuen (argazkian). Ladutxek urrezko domina irabazi zuen; C. Iraizoz uruguayarrak, zilarrezkoa.

Frantzia jokatu zen VIII. Munduko Pilota

Txapelketan (1978) zilarrezko domina lortu zuen eskuz binaka trinketea. Etxebeste arnatzarra izan zuen bikote. Finala Berhouet-Houseet frantziarren kontra galdu zuten.

Elizondoko Antxitonea trinketea jokatzeko txapelketak hamai-ka aldiz irabazi zituen eta Euskal Herri osoan jokatzeko trinketea txapelketetan Antxitonea ordezkatu zuen.

Beti afizionatu mailan jokatu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxandi eta Panpi Ladutxe, 1974ko Munduko txapelketan.

urriak 5 - 19

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Dokumentalak



ELIZONDO | 2017.10.06

'Euskal balezaleen triskantza'
dokumentala ikusgai Arizkunenean

Abentura, arkeologia, urpekaritza eta animazio bidez, 1615ean Islandian eraildako euskal bale arrantzaleen istoria berreskuratzen duen dokumentala ikusteko aukera izanen da 20:00etan Kultur Etxean.

Erakusketak



ZUGARRAMURDI | 2017.10-2018.01

Ready made estiloan egindako eskulanak ikusgai

Jose Luis Urtxulategi doneztebarrak egindako eskulturak, koadroak... ikusgai egonen dira urtarrilera bitarte Zugarramurdiko Sorginen Museoko goiko solairuan. Hantxe paratua du erakusketa.

Kultur ekitaldiak



MALERREKA | 2017.10

Kultur ekitaldiz betetako hilabetea izanen dute

Magia ikuskizuna Oizen, haurrendako ikuskizuna eta bertso afaria Ezkurran, antzerkia Elgorriagan eta ipuin-kontalaria Legasan. Ekitaldi horiek guztiak antolatu dituzte Malerrekako Kultur Biraren baitan.

Solasaldiak

LEITZA

Elikadura burujabetza

Urriaren 5ean.

SARA

Ikastola eta mintzaira hizpide

Urriaren 6an Koldo Zuazo
Lurberri gelan, 20:30ean.

DONEZTEBE

'Doneztebe pelotari'**liburuaren aurkezpena**

Urriaren 13an Tiburtzio
Arraztoak liburua aurkeztuko du, 19:30ean Liburutegian.

Paula Casaresen hitzaldia

Urriaren 19an *No sabemos (bien) euskera, ¿como les ayudaremos?* guraso erdal-dunendako. 15:00etan institutuko liburutegian.

ARIZKUN

'Lolita' liburuaren aurkezpena

Urriaren 15ean Lola Sarra-tearekin, 18:00etan Iruritan.

BERA

**Jakoba Errekondon
'Landareak lantzen'**
liburuaren aurkezpena

Urriaren 21ean 11:30ean
Beralandetan.

Erakusketak

ELIZONDO

'Etokizuna gaur hasiko da'

Urriaren 2tik 13ra Ramon
Sarranoren argazki erakus-
keta, Arizkunenean.

'Bigarren mailako errefuxiatuak'

Urriaren 16tik 31ra Antonio
Ruizen argazki erakusketa
Arizkunenean.

Tailerrak

ELIZONDO

Menopausiaren inguruan

Urriaren 4an eta 11n Osa-
sun Zentroan, 10:30etik

12:30era. Izen-ematea Eli-
zondoko Osasun Zentroan
edo 948 581832ra deituta.

**Hasiberrinedako xaboi,
erromeri-akohol eta txanpu
solidoa egiteko tailerra**

Urriaren 17an Arizkunene-
an, 16:00etatik 20:00etara,
Elena Ezkurdiarekin.

**'Produktu turistikoen
komertzializazioa eta
salmenta' dohainik**

Urriaren 16tik 20ra
09:30etik 13:30era edo
16:00etatik 20:00etara. Izen-
ematea: 666 615761 edo
noeliasampedro@gmail.com.

'Landa-etxeen kudeaketa'
hizpide dohainik

Urriaren 23tik azaroaren
6ra 09:30etik 13:30era edo
16:00etatik 20:00etara. Izen-
ematea: 666 615761 edo
noeliasampedro@gmail.com.

DONEZTEBE

Zirku-tailerra

Urritik abendura. 4 urtetik
goitikoendako. Asteartetan
16:30etik 18:30era.

BERA

Txotxongilo tailerra

Urriaren 21ean 18:30ean
Labiaga Ikastolan.

PROPOSAMENA

BERA

**Lurraren Egunaren
31. edizioa urriaren 22an**

10:00etatik aitzinera esku-
langileen eta elikadura azoka,
barazki erakusketa, Olako-
ren erakusketa eta tailerrak
izanen dira. Musikariak ere
ibiliko dira karrikak alaitzen,
eta gasna eta sagardo lehia-
keta ere egingen dituzte. Arra-
tsaldean, dantzaldiaz gain,
herri kirolak eta bertsolariak
izanen dira. Bezperan, ber-
tzeak bertze, Lizuniagako
igoera eta barazki opil lehia-
keta egingen dituzte.



Antzerkiak

IRURITA

Helduendako antzerki dantza

Urriaren 8an Bubamarada

Dance Theater taldearekin
10:00etatik aitzinera Gizarte
Bilgunean.

ELGORRIAGA

Klown ikuskizuna

Urriaren 21ean Pepa eta

Kutxo 18:00etan Kultur
Etxean.

Ikuskizunak

OIZ

'Majikus' magia eta ipuinak

Urriaren 7an 17:00etan.

BERA

'Erradikalak gara'

Urriaren 7an 20:00etan

Kultur Etxean. Ane Labaka
bertsolaria eta Beatriz Egiza-
bal antzerkilari eta ipuin-kon-
talariarekin.

EZKURRA

DJ Porru haurrendako saioa

Urriaren 14an 17:00etan

frontoian.

Dokumentalak

ELIZONDO

'Euskal balezaileen triskantza' dokumentalaren emanaldia eta solasaldia

Urriaren 6an Beñat Iturrioz

eta Eñaut Tolosarekin,
20:00etan Arizkunenean.

BERA

'Heriotzaren triangelua' dokumentala

Urriaren 6an Imanol Laburu-
rekin Kultur Etxean (19:00).

Bertsoak

EZKURRA

Bertso afaria

Urriaren 14an Iker Zubeldia

eta Iban Urdangarinekin.
Izen-ematea urriaren 10a
baino lehen (948 615098).

Nire aukera



Sara ARTIEDA INIGUEZ
Doneztebeko liburuzaina

«Irakurtzea ttikitatik maite dudana afizioa da, liburuak irentsi egiten ditut»

Nahiz eta gipuzkoarra izan, bizitza erdia baino gehiago darama Malerrekan bizitzen Sarak: «Iturenen bizi naiz eta bi urte daramatzat Doneztebeko liburutegian liburuazain bezala lanean, oso oso gustura». Liburutegi ttikia dela aipatu digu baina «erakusketa aretoa zena, liburutegiaren parte izatera pasa denez, zertxobait haunditzea lortu dugu». Espazio hau baliatuta, kultur eskaintza zabaltzeko erronka hartu du bere gain Sarak: «liburu-aurkezpenak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, haurren txokoa... antolatzen ditugu». Argi du, hori dela liburuzain baten ardura: «liburuak zaindu, erosi... baina horrekin batera bizitasuna ematea, erabiltzaileentzat lagungarri izatea ere gure lanaren parte da». Datorren urtean pauso garrantzitsua emanen dute, guztia informatizatzeko asmoa dute eta «horrek gauzak aunitz erraztuko ditu. Kontuan izan behar da liburu elektronikoen geroz eta garrantzia handiago dutela».

Aurten proiektu berezi bat ere jarri dute martxan, «irakurle talde bat sortu dugu eta emakume idazleen liburuak irakurtzen ditugu. 18 biltzen gara, oso jende desberdina. Irakurri, sentipenak elkarbanatu...». Horrekin batera, literaturaz gozatu nahi duenak ere izanen du aukera Donezteben: «literatur sortzaileentzako ikastaro bat antolatu dugu eta udazken literarioak ere ezin aipatu gabe utzi, urritik abendura arte hitzaldiak, liburu aurkezpenak... agenda oparoa dugu prest». Lanean kulturaz blai egiten du Sarak eta denbora librean ere ez du aparte uzten: «antzerkia arras maite dut, kontzerturen bat... eta irakurtzea noski, ttikitatik maite dudana afizioa da, liburuak irentsi egiten ditut».

Iturengo borda batean bizi da bi alabekin eta bertan, «natura bizi-bizirik sentitzea aunitz maite dut». Edozein arbolpean liburu bat hartu eta gozatzea da beretzat eguraldi ona denean egon litekeen planik politenetakoa «Mendaur magalean toki zoragarriak daude». Dena ez da irakurtzea, ordea, «lagunarteko afaritzoak ere behar ditut eta, noski, ahalik eta gehien alabekin disfrutatzea».

«Irakurri ez duenari Itxaro Bordaren 'Zure hatzaren ez galtzeko' liburu gomendatuko nioke».

Jardunaldiak

ESKUALDEA

Ehizari buruzko XXV.

jardunaldi gastronomikoak

Urriaren 12tik azaroaren
30era.

Kontzertuak

IRURITA

Bibolin eta biolontxelo saioa

Urriaren 15ean Rafaella

Avella eta Ian Swedlund
Jauregiarten 18:00etan.

ELIZONDO

Folk ametsetan Arizkunenean

Urriaren 22an Maria Des-
bordes saioa 19:00etan.

Ospakizunak

ETXALAR

Usategietako igandea

Urriaren 8an.

SARA

Garagardo besta

Urriaren 14an Herriko

Etzeko Edantegian.

LESAKA

Nafarroa Oinez

Urriaren 15ean.

ARIZKUN

Kirikoketa besta

Urriaren 21ean.

BERA

Lurraren Eguna

Urriaren 22an.

Bestak

GARTZAIN

Herriko bestak

Urriaren 11tik 14ra.

SARA

Besta ttikiak

Urriaren 7an.

Azokak

SARA

Ekoizleen azoka

Larunbatetan 08:00etatik
13:00etara frontoian.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ELIZONDO. Akulegi ka-
rrikan 2 logelako pisua
salgai. Prezioa: 55.000
euro. ☎646 774117.

ITUREN. Neurri desber-
dinetako apartamentuak
hagitz prezio interesga-
rrian salgai. ☎948 451337
/ 667 275013.

ANZABAL**INMOBILIARIA****BAZTAN, BIDASOA,
ULTZAMA eta
IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak,
partzelak, baserriak,
bordak, lokal komertzia-
lak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta
BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik base-
rriak, bordak eta
lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai,
moleztatua. 2000
m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- Aukera: 102 m²ko
pisua salgai. Egoera
oso onean dago. 3
logela, jangela, egon-
gela, 2 komun, suka-
le moleztatua eta
17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

LESAKA. Etxebizitza
errentan emateko. Irail-
etik aitzinera. Irakasle-
tzako edo langileentzako.
☎678 855056.

IRUÑEA. Buztintxuri au-
zoan ia berria dagoen 3
logelako pisua errentan
emateko. ☎660 541278.

BERA. Pisua errentan
emateko. Hiru logela, bi
komun, sukaldea, egon-
gela eta terraza eguzki-
tsuarekin. Orain dela gu-
tti berritua. ☎660 984215.

BERA. Errekalde gaine-
an 2. solairuan pisua
errentan emateko. Sukal-
dea, egongela, 4 logela,
2 bainugela eta 2 balkoi
baditu. ☎647 784276.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

BERA. Pisua errentan
emateko. Guztiz eraberri-
tua. Hiru logela, egonge-
la, sukaldea eta komun
bat. Berogailua gasare-
kin, balkoi handia. Mo-
bleztatua. Hirugarren pi-
suan, Berako BBV ondo-
an. ☎660 381087.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

DONOSTIA. Bi garaje
marra salgai. ☎678
855056.

LESAKA. Herriko plazan
garajea errentan emate-
ko. ☎675 714360.

LANA
eskaintzak

ELIZONDO. Bidegain
arraindegian berehala la-
nean hasteko prest da-
goen langilea behar du-
te. Lan finkoa, astearte-
tik larunbatera goizez ari-
tzeko. Ezinbertzekoa da
gidabaimena izatea. In-
teresatuek deitu, denda-

ra joan edo curriculuma
bidali: info@pescadosbi-
degain.com. ☎606
585163/ 948 580496.

Eskualdeko enpresa bat
saltzaile baten **bila** da-
bil. Euskaraz jakitea eta
eskualdekoa izatea kon-
tuan hartuko da. ☎607
726548.

Obrako teknikoa behar
da iparraldean lan egite-
ko. Frantsesez dakiena.
☎639 708414.

ZUGARRAMURDI. Bert-
tako ile-apaindegi bate-
an lan egiteko langilea
behar da, esperientzia
duena eta frantsesez da-
kiena. ☎948 599079/619
372546.

BERA. Jatetxe batean
esperientzia pixka bat ba-
duen zerbitzaria behar da
lanean aritzeko. ☎617
723475.

BERA. Katakua ostatuan,
sukaldean lan egiteko
pertsona bat behar du-
gu. Interesa duenak dei-

tu edo idatzi ☎617
489765.

LESAKA. Kafetegi bate-
an egun erdiz aritzeko
langilea behar dugu. Bi-
dali curriculum: m.eva
ogi@gmail.com.

LANA**eskariak**

Haurrak edo adineko
pertsonak zaintzeko
emakumea lan bila.
☎693 474983.

Adinekoak edota haurrak
zaintzeko eta **garbike-
ta** lanetarako lan bila.
☎644 963709.

Adinekoak zaintzen in-
terna edo orduka, hau-
rrak zaintzen edota gar-
biketari lan egiten nuke-
n **emakumea** naiz. Adi-
nekoak zaintzen espe-
rientziaduna. ☎635
296717.

Adinekoak zaintzen es-
perientzia handiko gizo-
na **adinekoak zaintze-**

ko lan bila. Hezkuntza
berezian formakuntza,
baita fisioterapiaren ere.
☎612 421818.


Ostalaritzan esperientzia
handia duen **emakumea
lan bila.** Ostalaritzan ur-
te aunitz aritua, postu
desberdinetan. Hainbat
negozioren kudeaketan
ere ibilia. Edozein lan egi-
teko prest. Kotxe karne-
ta eta kotxea duena.
☎646 330956.

Adinekoak edota haurrak
zaintzen, garbiketa lane-
tan edo sukaldari lagun-
tzaile bezala **lan egiten
nuke goizez.** Haurrak
zaintzen esperientzia. Gi-
dabaimena eta kotxea
duena. ☎608 371643.

BAZTAN. Adinekoak
zaintzen, garbiketa lane-
tan edo sukaldari lagun-
tzaile bezala aritzeko lan
bila. Esperientzia suka-
dari laguntzaile bezala.
☎618 153089.

Adinekoak zaintzen es-
perientzia handiko ema-
kumea lan bila. **Adine-
koak zaintzeko** lan bila
edo **sukaldari laguntzaile
bezala** ere bai. ☎629
016347.

Emakume euskalduna
lan bila. Etxeko lanak egi-
ten, haurrak edo adine-
koak zaintzen ariko litza-
teke. Bera eta Lesaka in-
guruan. ☎678 903294.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(irailaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 42 €

Zerri gizena
1,340€ kiloak.

Zerramak:
0,700 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/k Kanal
Extra 4,32

1.koa 4,10
2.koa 3,90

Urruxak: €/k Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,20
2.koa 4,00

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,29/3,39
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,20/8,80
8-10 kilokoak: 6,70/7,20

MOTORRAK salgai

Jimny 1.3 autoa salgai, 16v. 105.000 km. Egoera ezin hobean. Konpromisorik gabe probatu daiteke. 4.700 euro. ☎630 221208.



Ford Focus autoa salgai, 1.6 tdc, gasolina, 115 zaldi. Egoera arras onean eta extra askorekin. ☎699 375558.



Citroen Xsara VTS 2.0 autoa salgai, HDI, 110 cv, diesela. 3 atekoa, 2003 -koa, 194.000 Km. Oso ongi zaindua. ☎646 762383.



ZERBITZUAK psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu orduta
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

DENETARIK salerosketak

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta hari-tza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ELIZONDO. Ohe artikulatua eta eskailerak goitze-ko aulki motorduna salgai. Prezio ona. ☎948 581170.

LEGASA. Egurra leher-tzeko gasolina makina errentan emateko. ☎669 332549.

Mahaia salgai bere sei aulkiekin. Hagitz egoera onean. 150 euro (Prezio negoziagarria). ☎685 764400.



ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

LESAKA. Zeharkako flauta salgai. ☎675 714360.

LESAKA. Domusa gas-galdara salgai, 130 litroko akumuladorearekin. Egoera onean. Prezio onean. ☎675 714360.

Oruga eskailera igogailua salgai. Sei hilabete ditu, eta garantiarekin. Bidean (Irur) eresia. ☎636 694852.



Pago trinkoarekin eginda-ko **rinkonera** salgai (1,30 x 1,70 x 0,50 sakonera), **mahaia** (1,30 x 0,80 x 0,76 altueran) 2 **aulki** eta **taburete** bat kuxinekin. Bat

datozen estoreak opari (1,70 x 0,50). 290 euro. ☎610 385867.



Ostalaritzako materiala salgai: kafe makinarendako armairua (altzairu inoxi - dablea) 3 ate ditu eta 3 kajoi, bat kafearendako; hozkailu horizontala (2 metro zabal eta 3 ate) eta hozkailu bertikala (170 cm x 62 cm). ☎663 516107.



2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net



KULTURKARI
DISEINU GRAFIKOA | PUBLIZITATEA
T. 948 635 458 | www.kulturkari.com

LOGOTIPOAK | KARTELAK | ARGITALPENAK | EGUTEGIAK | BOLETOAK | OROITGARRIAK | TXARTELAK
ORRI MUTUAK | POLTSAK | ESTILO-GIDALIBURUAK | LONAK | BINILOAK...



ZURE
ENPRESAREN
EGUTEGIAK



Eman **KOLOREA** mundu grisari!



Hemen zure enpresaren irudia edo komunikazioa...
Modelo ezberdinak ditugu




Iruditxo bakoitzaren ordez, jarri dagokion hitza eta esaera zahar bat agertuko zaizu.

Oso galdera ona da, baina hurrengo baterako utziko dugu. Momentuz, bila ezazu bikoterik ez duen txoria. Hirukote bat ere badago, zeintzuk osatzen dute?



PELOZIRIREN IKASGELAN

Zazpi zati hauetatik lau eskuineko irudi nagusitik hartuta daude.
Beste hiruk, aldiz, irudi nagusiaren zatiak dirudite, baina ez dira.
Zeintzuk dira onak eta zeintzuk txarrak?



JOLASTU INTERNETEN!! AUKERA ZABALA!

plazanbazan.eus



KIOSKOA | JOLAS-PARKEA | AZOKA | UDALETXEA | IKUSKIZUNAK | IPUINAK | KOMIKIAK | MARRAZKIAK
SUDOKU, MARGOTU, OSATU, PUZZLEAK, ALDEAK, ARROTZA, BAKOITZARI BERE, BILATU, DOMINOA, EZETZ ASMA,
GOGOAN HARTU, HANDITIK TXIKIRA, IRUDI ENGAINARIAK, ITZALAK, LABIRINTOA, LERROA EMAN...



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



UGAITZ ESPELOSIN
OTEIZAK 4 urte bete ditu irailaren 28an. Zorionak etxeko gixonari familia guztia eta bereziki aita eta amaren partetik. Muxu potoloak.



KATXA SAINZ
ETXABIDEK urriaren 2an urte bat bete du. Aunitz urtez, mattia! Muxu haundi haundi bat Maddi Ane, atta eta amaren partetik!



Zorionak IRAITZ!
Merienda goxo batekin ospatu-ko dugu zure eguna. Aresoko eta Berako familiaren partetik muxu haundi bat!



Urriaren 2an eta 3an ARITZ eta AROA osaba-lobak urteak bete dituzte. Zorionak familia guziaren partetik.



Aunitz urtez Elizondoko MATTIN eta EIDER!!! Irailaren 23an eta 25ean 37 eta 3 urte bete baitzituzten! Muxu bat etxekoan partetik!



Kantu zaharrak esaten dun modun, ura bere bidean doa, Arantzako gure **HELENE ALZURI LUJANBIO**, berriz, 8 urte betetzera badoa. Familia guziaren partetik muxu potoloak!



Lesakako JARE MAIA AROZENAK 6 urte beteko ditu urriaren 5ean. Aunitz urtez familiaren partetik.



NAHIKARI LARRALDEK 29 urte beteko ditu urriaren 4an. Aunitz urtez familiaren partetik.



Usoak urteak beteko ditu urriaren 9an. Aunitz urtez eta muxu haundi-haundi bat Lesakatik! Ongi pasa eguna!



Aunitz urtez ARANTZA! Txan-txiku berartuak urriaren 18an urteak beteko ditu. Muxuak gosariaren esperoan dauden horien partetik!



AMAIK urriaren 25ean urteak beteko ditu. Aunitz urtez zuri ere! Zure gosaria ere espero dugu e! Muxu haundi bat lan-kideen partetik!



IRATI LIZARDI ABASOLO, zorionak sorgintxo! irailaren 25ean 8 urte bete zenituelako. Zorionak familia eta lagunen partetik. Muxutxoak!



Aresoko ALEN ZUBILAGA URRETA irailaren 25ean jalo zen. Ongi etorri Aresora! A ze familia ederra osatu duzuen Loidiko kabian! Zorionak eta muxu haundi bana boskote!

hemen agertu nahi duzu?

argazki soilak 5 EURO
argazki bikoitzak 10 EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

Zorionak zuri zureak zuri zureak betetz!!!

egin zure erosketa **erran.eus** en

ber tsotan ritsuketan

BERA KULTUR ETXEA

URRIAK 7 20:00

SARRERA 3 EURO

-erradi xelax gara

Lanku
www.lanku.eus

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

694 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Camelot Park - 2 sarrera
Janire Apeztegia Etxebeste | SUNBILLA
Irrisarri land - 2 sarrera
Ruben Pedrosa Medina | BERA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Inaki Zabaleta Zabaleta | LEITZA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Maite Oskoz Lertxundi | DONEZTEBE
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Genaro Fagoaga Etxeberria | URDAZUBI
La Rhune - 2 sarrera
Xabier Susperregi Otxoteki | LESAKA
Sendaviva - 2 sarrera
Ainara Abete Goñi | ELIZONDO
Erein argitaletxea - Liburu bat
Cristina Apeztegia | ORONÓZ-MUGAIRI
Erein argitaletxea - Liburu bat
Vicente Taberna Irazoki | IRUNEA



BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat



Haur kamiseta bat



Lote bat

**LI
BU
RU
AK**



Judith Koppens & Anouk Nijs
Mila

- ...bi etxetan bizi da
- ...eta bere lagunak



TTARTALO
www.ttartalo.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.okilletailerraesp.blogspot.com.es



www.martiko.com

31. LURRAREN EGUNA

BERA

2017



Urriaren 21a Larunbata

- 11:30 Beralandetan Jakoba Errekondorekin
"Landareak lantzen" liburuaren aurkezpena
15:30 Iamotenean Ttikien Lasterketa
17:00 Lizuniagako igoera
18:30 Labiaga ikastolan Argazki erakusketa.
Txotxongilo Tailerra
19:00 Altzateko Frontoian XI. Barazki-opil
Lehiaketa
20:00 Bera kantari eta trikitilariak

Urriaren 22a Igandea

- 10:00 Altzaten Eskulangileen eta Elikadura
Azoka, Barazki Erakusketa, Olakoren
Erakusketa, Tailerrak
Eszenatokian Bortzirietako Txistulariak,
Irats trikitilariak eta Zeltiar Folk taldea.

- 11:00 R. Baroja eskolan Bortzirietako 31.Gasna
Lehiaketa eta Bera eskolako trikitilariak.
Eguerdian Karnaxenean, 20. Sagardo Lehiaketa
Musika Eskolako Txistularien, Trikitilarien,
Talde instrumentalaren eta Bandaren kalejira
16:30 Kuxkuxtu Txaranga
17:00 Altzateko plazan Herri Kirolak:
Nafarroako Arpana Txapelketa Mistoa eta
Harri-jasotze erakustaldia
18:00 Bertsolariek zuzendutako sari banaketa eta
ondoren dantzaldia Oharkabe taldearekin

Egun guztian zehar, taloak, jaki eta edari dastatzeak.
Goizean, 08:00etatik 09:00ak arte erakusketarako barazkiak
ekarri behar dira Merkatuko Plazara (Illekueta aldean) eta
gaztak eta sagardoak R. Baroja eskolara.

